

Sexualitatearen Koloreak



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Sexualitatearen Koloreak



Edizioa:

1., 2016ko abendua

Ale-kopurua:

150 aleak

© Bizkaiko Foru Aldundia**Internet:**

www.gaztebiz.eus

www.egk.eus

Egilea:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) (Ageitos Urain, Norma)

Argitaratzailea eta Koordinatzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia

Diseinua eta maketazioa:

José Poza Valle

Lege Gordailua:

BI-229-2017



1. Gidaren aurkezpena



1.1. Zer da “Sexualitatearen koloreak”?

“Sexualitatearen koloreak” Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen hitzarmenaren barruan burutuko duen Gida bildumaren lehen lana da.


Bizkaiko Foru Aldundiarekin Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak duen lankidetzako markoaren barruan burutuko diren gida bilduman lehena da.

Egun aniztasun sexuala ez da soilik legez baimenduta dagoen eskubide bat, baita errealitate ukaezina ere. Hori dela eta, bizitzako lehen faseetan ezinbestekoa da aniztasunarekiko aldeketasunean eta lantze jarrian heziketa jasotzea. Helburu honetan ahalik eta eragile gehien batu daitezkeen (irakasleria, astialdiko hezitzaileak, familiak...) “Sexualitatearen koloreak” Gida eraiki da.

1.2. Osagaiak

Marko honetan eraikiko diren Gida guztien helburu izango da ume nahiz gazteen beharrei erantzuten dieten ikuspegi batetik beraiekin hezkuntzan aritzeko tresna teoriko zein metodologikoak eskaintzea. Hala nola, hauek haratago doazen dauden tresna eta baliabideak ere ikusaraztea.

Hau dela eta, bilduman lehenengoa izango den Gida honetan, bi material eginditugu. Alde batetik, gida, sakontasunez azaltzen dituen bai arlo teoriko zein praktikoa. Bestetik, triptikoa, egunerokotasunean ager daitezkeen galderei erantzun azkarra emateko laguntza baliabidea dena.



1.2.1. Gidaliburua


Edozein testuinguru pedagogikora molda daitezkeen gida hau oinarritzko informazioz, adibide praktikoz eta proiektutik at dauden baliabidez osaturik dago. Hortaz, gida hau, bai bere egunerokotasunerako nahiz esku-hartze puntualetarako abiapuntu bat bilatzen duen heitzailearentzat, hala nola, bere beharrei eta zalantzei erantzunak bilatzen dizkion gaztearentzat diseinatu dago.

1.2.2. “Larrialdietarako” Triptikoa

Egunerokotasunak baditu ere kudeatu beharreko beste momentu batzuk, hauek dira galdera eta arazo puntualak, bat-batean agertzen diren horiek. Sarritan, “zer” erantzun jakiteko desiratzen egoten gara, ordea, hain gai pertsonal eta zeharkakoa izanik sexualitatearena “nola” erantzuteari arreta ezarri diogu triptiko honetan.

Triptikoak lehenengo arreta eta harrera momentu batean izan beharreko jarrerari buruzko jarraibideak jasotzen ditu. Hala nola, informazio edota akonpainamendu konkretuago bat behar izanez gero Bizkaian aurkitzen diren espazioak ere agertzen dira.

2. Aniztasuna txertatuz



Gidaren egitura zein nondik-norakoen definizioan lagundu duten elkarrizketatutako pertsonen eta gizartearen beharrak azpimarratzea ezinbestekoa da.

2.1. **Gidaren zergatia: aniztasunaren beharra**

Hasiera batetik adierazi bezala, aniztasunarekiko errespetua legez ziurtatua dago.

Hala ere, egia da aniztasuna bere osotasunean oraindik ere ikusezin dirauela eta honek gure gertuko iraganarekin harreman zuzena duela. Zeren, mundu mendebaldar osoan zehar, gutxienez azkeneko 500 urtez (leku batzuetan denbora gehiagoz), identitatea eta bikote harremanak, hala nola, hauen zergatiak eta helburuak ulertzeko era bakar bat izan da zilegi. Gainera, historian zehar, honen arabera hierarkia desberdinak eraiki dira, baita diskriminaziorako era legalak ere.

Honek ezinbestean dakar aniztasunaren gutxiengotzat edota “ez normatibotzat” sailkatuak izan diren identitate, izaera nahiz orientazioak ikusgai egiteko esfortzu berezia egin behar dela, oraindik ere ez baitago onarpen maila guztiz ziurtaturik gure gizartean.

Hortaz, argi gelditzen da aniztasunaren beharretako bat honen eredu guztien onarpenaren bidean badela, nolabait, bere ikusgaitasuna bera lantzea. Ordea, hau ezin daiteke egin honen ezagupenik gabe, ezta aniztasunaren eredu bakoitzaren (berezkoa edota eraginda den) konplexutasunaren kontzientzia hartu gabe. Hau dela eta, aniztasun sexualaren ikusgaitasuna era sakon batean lantzeko tresna bat bezala agertzen da gida hau.

2.2. **Gidaren oinarrian: aniztasunaren beharrak**

Edozein hezkuntza testuinguruetan esku-hartze egokia diseinatu ahal izateko aniztasun sexualari dagokionez dauden erronkak ezagutzea da ezinbesteko abiapuntua.

Hau da, derrigorrezkoa da behar konkretuetara jaistea eta ikusaraztea zeintzuk diren ikusezinak bilakatuak izan diren kolektiboen eskaerak eta proposamenak, aniztasun sexualaren abiapuntutik eraikitzen den hezkuntza ereduak hauetara molda dadin.

EGK-ko Hezkuntza lan-arloarekin kontrastea burutu ostean, ondorioa guztiz argi zegoen: beharrezkoa zen egungo eta biharko gazteriarentzat lagungarria izango litzatekeen marko bat eraikitzeko egungo gazteek bizi zituzten zailtasunak eta burutzen zituzten eskaerak kontuan izatea.

Gauzak horrela, eragileek beraiek, bai gazteek zein familiek eta hezitzaileek detektaturiko premiak eta eraikitako eskaerak aztertzea beharrezkoa zitzaigun.

Honetarako, alde batetik, hainbat LGBTI+ elkartetako pertsona gazteak elkarriketatu ditugu. Bestetik, hirugarren pilarean ere arreta ezarri dugu (fami­liak), adintxikiko transexualen elkarte batetako presidente elkarriketatuz.

2.2.1. Gazte errealitatea lehen eta hirugarren pertsonan

Gazte begirada txertatzeko ondoko pausoak eman dira:

- EGK-ko Gaur8 lantaldearekin kontraste bilera bat burutu da
- Hurrengo elkarteetako gazte nahiz mota desberdinetako partaideei elkarriketak burutu zaizkie:
 - Aldarte
 - Bizigay
 - Chrysallis Euskal Herria
 - EHUKo LGTB Liga
 - Errespetuz
 - Gehitu

Pertsona guztiei galdetegi berdina pasa zaie, honen oinarri izanik galdera irekietan zentratzea. Helburua ez baitzen datu konkretuak lortzea, baizik eta bakoitzaren diskurtsoan gida honen diseinurako klabeak aurkitzea.

Honetarako, jarraian aurkezten dugun galdeketa izan da elkarriketa egiteko erabilitakoa:



Aniztasun sexuala eta gazteak aztergai:

Galdeketa guztiz anonimoa da eta norberak erabakitzen du bere izena edo deitura bat erabiltzea. Honetaz gain, eskatzen dizugun informazio bakarra da zure "identitatea" (emakumea, gizona, pertsona ez binarioa...) eta "orientazioa" (heterosexuala, pansexuala...) da. Eskertuko genizuke ere zure adina adieraztea eta, nola ez, zein elkarteren partaide zaren.

Galderen helburua da "gazte diskurtsoa" osatzea. Alegia, argudioak, esperientziak, gomendio konkrituak... jasotzea. Gazteek aniztasunari begira dituzten erronkak eta beharrak azaleratzeko, hauetan oinarrituko baita giden edukia.

Besterik gabe, mila esker zure laguntzagatik. Edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte kontaktuan ondoko helbide elektronikoan: berdintasuna@egk.eus.

GALDEKETA

1. "Aniztasun sexuala" eta "gazteria" hitzak entzuterakoan, zein da burura datorkizun lehen egoera?
2. Zeintzuk dira egungo gazteek aniztasun sexualari begira dituzten beharrak (hezkuntza, kontzientziazioa, eskubideei buruzko informazioa...)?
3. Zeintzuk esango zenituzke direla hezitzaile batek aniztasun sexualarekiko dituen beharrak?
4. Nola ekidin daiteke LGTBI+ kolektiboaren diskriminazioa hezkuntzatik?
5. Hezkuntza izan al daiteke kolektiboaren beraren ahaldunderako tresna bat?
6. Bestalde, hezkuntza sistemaren egituraketaz eta azpiegiturez ere, ba al dago zer birplanteatu?
7. Zein gustatuko litzaizuke izatea LGTBI+ kolektiboko nerabe edo gazte batek hezitzaile batengandik jasotako "mezua"?
8. Zein baliabide eskatuko zenioke gida honi? Zein "mezu"?


2.3. Erronkak laburbilduz

Atal honetan ondorio nagusiak aurkeztuko dira, puntu bakoitza aurretiaz aurkeztu dugun galdetegiko galdera bakoitzari lotua dagoelarik:

1. *Pertsonaletik jendartera: pixkanakako hobekuntzak*

Nahiz eta badauden zailtasun desberdinak bizi izan dituzten gazteak, bereziki hauek LGBTBI+ kolektiboaren alderik ezezagunetakoak direnean, badago nolabaiteko pixkanakako hobekuntza historikoaren azpimarraketa egindako elkarriketetan.

Hala ere, guztiak bat datoz ez dela nahikoa orain arte egindakoarekin eta eskubide eta askatasun Berdintasunaren bidean lan gehiago egitea beharrezkoa dela. Nolabait, Berdintasun arauemailea ziurtatua dagoela ia esparru gehienetan, baina Berdintasun eraginkorraz hitz egiterakoan, aldiz, errealitatea oso diskriminatzailea dela ikus daitekeela.



Gainera, guztiek azpimarratzen dute LGBTBI+ kolektiboaren baitan dauden pertsonen ere oso diskriminazio maila desberdinak bizi ditzaketela, maila igotzearen delarik kolektibo konketuarekiko ezjakintasun maila igotzean. Izan ere, historian zehar, gizarte zein maila sozial bakoitzak aniztasun sexualaren adibide desberdinei buruz gezur, aurreiritzi eta estereotipo desberdinak eraiki ditu.

Laburbilduz, nahiz eta orokorrean gizarte kontzientziaren nahiko ebaluaketa positiboa egiten den, bereziki historian atzera begirada bat bota ezker (batzuetan 20 urtez baino gehiago ez dena luzatzen iraganeruntz), badago diskriminazioaren bizirautearen onarpen irekia, hala nola, horrelako egoera bat bizi izanaren kontzientzia.

2. *Eskubide osoko hiritartasuna: errespetua, elkarrekikotasuna eta onarpena*

Atal honetan erantzunak bai gazteria osoari buruz gogoeta eginez, hala nola, normatibitate at aurkitzen diren gazteei buruz gogoeta eginez eman ziren. Ordea, hauek laburbiltzeko, azken hauei buruzko gogoetaren ondorioetik abiatu nahi dugu.

LGBTBI+ kolektiboaren parte diren gazteek, beste edozein gazteek bezalaxe, beraien hiritartasuna osoki onartua eta garatua izan ahal izatea dute behar gisa. Alegia, eskubide eta askatasun Berdintasun testuinguru eraginkorra izatea beraiena. Baina ez soilik dimentsiorik material edota juridikoenean, baita ere gizarte mailari begira ere.



Era honetara, Administrazio zein erakunde publiko desberdinei errespetuarekiko derrigortasuna azpimarratzea eskatzen zitzaaien bitartean, gizarte mailako helburua sakonagokoa zen. Izan ere, guztiek azpimarratu zuten gizarte mailan ez dela nahikoa indarkeria kasuak ez ematearekin.. Gizarte mailako onarpenak nolabaiteko “maitasuna” bazekarrela.

Hau da, ezinbestekoa dela Berdintasunaz hitz egin ahal izateko, norbanako bakoitzaren izaera konkretua ere baloreen jartzea. Positiboki aurkeztea aukera bezala. Eta honetarako derrigorrezkoa da beste edozein bizimoduk dituen akonpainamendu, laguntza eta zerbitzu berdinak helaraztea.

Aniztasun mota guztiak berdintzat jotzeak ezinbestean dakar, nolabait, egoera guztiak ontzat ematea eta normatibitatearen harresiak deseraikitzen hastea. Hala ere, ulertu beharra dago, batzuetan beharrezkoa dela arreta berezi bat luzatzea hainbat kolektibo edota egoerei, baina kontuan izanik hori ez dela aniztasunaren ondorio ekidiezina.

3. Zeharkakotasun falta informazio galeran bihurtzen denean

Gazteriak ez ditu berdin ulertzen aniztasuna eta “normatiboa ez dena”. Izan ere, aniztasunaz hitz egiterakoan pertsona mota guztiak barne hartzen direla ulertzen da. Ordea, “normatiboa ez denaz” hitz egiterakoan, aurreiritzi nahiz estereotipoengatik kondenatuak izan diren aniztasun eredu eta gutxiengo horietaz ari dira.

Hau esanda, gehitu behar da eragile desberdinek oraindik “aniztasunaz” hitz egiterakoan “eredu ez normatiboez” soilik hitz egiten dutela dirudiela. Ondorioz, aniztasunak ez du beharrezko zeharkakotasuna lortzen. Honen ordezt, “normatibo” eta “ez normatiboen” arteko desberdintasuna handitzen da eta bigarren hauengan arreta berezia ezartzean laburtzen dira “aniztasun sexualarekiko” neurri zein politikak.

Beste ondorio zuzen bat da informazio gabezia. Era berean, zaila egiten da gaiari buruz formakuntza duten hezitzaileak aurkitzea, ezagutza gabezia honengatik.



Hau guztia, esan bezala, aniztasunaren benetako zeharkakotasun faltagatik ematen da. Ez baita hau banako guztien ezaugarri bezala ulertzen, errealitatean ematen den bezala.

Hala, ustetan ez normatiboak eta gizarte gutxiengoak garrantzi faltan erator daitezkeela, zaila egiten da kolektibo desberdinei buruzko formazioa duten hezitzaileak aurkitzea, informazio falta orokor bat dagoelako.

Esaten genuen bezala, honen klabe nagusia da aniztasuna ez dela benetako zeharkakotasunean ulertzen eta ez dela norbanako guztien ezaugarritzat jotzen, errealitatean suertatzen den bezala.

Hortaz, zeharka txertatzea, formakuntza eta informazioa eskuragarri izatea dira gabezia handiak. Hauek, ezinbestean, sexualitatea lantzeko jarreraren eragiten dute. Izan ere, aurrerago aipatuko dugun “lantze jarrera” ezin daiteke informazio gabe garatu.

4. Zeharkakotasuna: arreta berezia ulertzen duen onarpen kontzeptuaz

Aniztasun sexualari dagokion ikuspegia bikoitza izan behar da ezinbestean. Alde batetik, aniztasuna guztiongan aurki dezakegun nolakotasun bat da, bizitzan zehar egiten den eraikuntza independentetzat jo daitekeena. Bestetik, ez dugu ahaztu behar garapen pertsonaleko prozesu honetan testuinguruak duen eraginak eta egun ere ematen diren diskriminazioak.

Hau dela eta, esku-hartzeak ere bikoitza izan behar du. Egun badirauen diskriminazioa eteteko ezinbestekoa da indarkeria kasuak (bullying-a, erasoak...) agertzen direnean zerbait egitea; baina baita ere aniztasunaren beste ulerkera batean hezteak.

Elkarriketatu guztiek jo dute beharrezkotzat indarkeria mota desberdinei erabateko erantzuna ematea baina honekin sinesmen eraldaketarako nahikoa ez dela adierazi dute ere. Batez ere, hainbat testuinguruen eraginak (familia, berdinen taldea...) ere zerikusi handia duelako nerabe zein gazteen sinesmenetan.

Gainera, elkarriketatu guztiek adierazi dute aniztasun sexuala bizitzako lehenengo urteetatik landu beharko litzatekela hezkuntzan, gizakiari atxikia doan ezaugarria izanik.

Sexualitatea, bizitzaren momentu bakoitzean duen presentzia ulertuz eta edukiak moldatuz, hezkuntzan txertatu beharreko gaitzat jotzen dute. Adibidez, hainbatek aipatu dute jada txikitatik haurrek bizi dezaketen familia-aniztasun egoera eta, ondorioz, beste hainbat gai bezala (kulturartekotasuna, aniztasun funtzionala...), landua izan beharko litzatekeela momentu horretatik.

5. Eraldaketarako tresna: hezkuntza

Aurreko ildoari jarraiki, hezkuntza ez da bakarrik ahaldunderako tresna bat LGTBI+ kolektiboari dagokionez, izan ere, hezkuntza ahaldunderako lehen **tresna** eta **garrantzitsuena** dela diote elkarriketatuek. **ezinbesteko**tzat jotzen da, **etorkizuneko hiritarrak** eraikitzeke balio baitu, oraindik ere ematen diren bereizketek kontzientzia hartzeko bidea izanik.


Baina, honetarako, esan bezala, ezinbestekoa da eraldaketaren sakontasunaren beharrez kontzientzia hartzea. Aniztasun sexuala ikusgai bilakatu eta sustatzen duen hezkuntza eredu bat ezin baiaiteke gauetik goizera eraiki..

6. Diskurtsoaren koherentzia

Aurreko atalean aipatzen genuen asmo handiko helburu hori egia bilakatzeko, elkarriketatu guztiek gehitu dute hezkuntza sistemak, honen edukiak eta baita azpiegiturek edota hauen kudeaketak eraldaketak bizi behar dituztela. Nahiz eta egia den bakoitzak, bereziki azpiegiturei begira, helburu desberdinetarako bide eta behar desberdinak identifikatu dituela.

Hau da, gizarte eraldaketa helburu izanik, hezkuntza sisteman bertan jarrera aldaketa oso bat egon behar da. Honetarako, “naturaltasunez” aniztasun osoa ikusgai egitea eta egunerokotasunean txertatzea izan behar da estrategia.

Ordea, puntu honetan aurkitzen da zailtasunik handiena. Izan ere, horrelako eraldaketa batek, azpiegiturak eta hauen erabilerak ere eraldatzen dituen bezala, adingabeen arteko harremanen testuinguruak eraldatzen ditu. Honi buruz, eragile nahikotxok adierazi dute batzuetan familiak eraldaketa maila hauekiko mesfidati agertzea probableagoa dela.



Azken batean, adierazi dute, tolerantzia hutsetik onarpen kontzeptu osoago bateragoko jauziak azalarazten ditu oraindik ere badirauren LGBTBI+fofia. Izan ere, honek guztiak bai gorputzarekiko bai sexualitatearekiko hainbat desinformazio eta beldur anitz agertzea eragiten du.

Azpimarratu den bezala, hau litzateke eraldaketarik konplexuena eta arreta hezkuntza arloko esparru desberdinetan ezartzea eskatzen duena. Adierazi bezala, nahiz eta ez dagoen adostasun oso bat elkarriketatuen artean neurri desberdinak aipatzerakoan, egun detektatzen diren gabeziak aipa ditzakegu, gidan zehar landuko baitira sakonago proposamenak:

Hezkuntza testuinguru desberdinen gabeziak:

Neska eta mutilen banaketa

Egun oraindik ere hainbat egoeratan neska-mutil banaketa dikotomikoa burutzen da hezkuntza testuinguru desberdinetan. Segregazio honek, bereziki bere helburuen arabera, ondorio anitz ekar ditzake, aipa ditzagun batzuk.

Hasteko, aurretiaz ez dagoenean identitatearen gaineko lanketa bat, arazoak ager daitezke hartzaileen artean bere identitatearen eta esleitutakoaren artean desberdintasuna dagoenean. Alegia, trans* pertsona batzuen kasuan.

Hau gutxi balitz, batzuetan segregazioa “ohitura mantentzearen” antzeko argudioen bitartez justifikatzen da. Adibidez, dantza taldeak antolatzeke, kirol

mota desberdinak praktikatzeko... eta honek identitate egitura dikotomikoa indartzen du. Ordea, abagunea aprobeitza genezake rola, aurreitziak... nola eraikitzen diren ere aztertze.

Erreferente falta

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaz hitz egiterakoan jada hainbatetan aipatua eta landua izan den gai bat dugu hau. Honen garrantzia ulertzeko, pentsa dezagun hezkuntza testuinguru batek, kasu honetan, hezkuntza formalaren testuinguruak eskaintzen dituen erreferenteak ikusgai egiteko abaguneak:

- Adibide praktikoetan agertzen diren protagonistak (matematikako problemak, testu liburuetaiko istorio laburrak...)
- Historia irakasterakoan sustatzen dugun gizarte analisia.
- Gomendatzen eta erabiltzen ditugun literatura zein ikus-entzunezko materialak.

Orain, galde diezaiokegu gure buruari: zenbatetan, egun edo gertakari konkretu bat gerta ezean, aniztasun sexuala txertatzen dugu aurreko adibideetan?

Gabezia honek bi zentzutan eragiten du. Alde batetik, gutxiengoetan aurkitzen diren aniztasunaren erakusle diren pertsonak erreferenterik gabe hezten dira. Bestetik, hauekiko ezagutza faltak ezinbestean informazio falta dakar, hala, estereotipoen indartzea.

Gainera, sarritan erreferenteak bilatzen ditugunean egun edo gertakari konkretu batekin harremanetan, ez dira **“erreferente positiboak”** erabiltzen. Alegia, ez dira diskriminatutako gutxiengoaren adibide esanguratsu eta positiboak erabiltzen, baizik eta diskriminazioaren jarraitzeak sor ditzakeen ondorio latzen irudiak erabili ohi direla. Mezu negatiboetatik soilik lantzen den kontzientziakzioak bere ondorio latzak izan ditzake. Batez ere, sufrimenduaren eta zailtasunen diskurtsoa indartzen duelako eraldaketa burutu ahal izateko eta guztion eraldaketarako konpromisoa indartu dez.



Chrysallis Euskal Herriak 2017an ateratako kanpainak transexualitate egoeran zeuden umeen irudi positiboak baliatzen zen erreferenteak sortzeko. Honen berria eta beste hainbat material aurki daitezke elkartearen webgunean ere [\[http://bit.ly/2jdBclF\]](http://bit.ly/2jdBclF)

Ikasleetara edota “hartzaileetara” moldatze beharra

Hezkuntzak dituen zailtasunen artean dago aurretiaz ezarritako helburuen eta hartzaileen beharren arteko oreka aurkitzea.

Hartzaileen beharraren pisua gero eta txikiagoa bilakatzeko arriskua badago eta, horrela izanik, zaila da benetan eraginkorra den esku-hartze bat diseinatzea, ez baikaude momentuaren eta testuinguruaren beharrei moldatzen.

Malguak izatea, arreta ezartzea hartzaileen beharretan eta eskuragarri egotea ezinbestekoak dira gutxieneko konfiantza eta irekitasun testuingurua sortzeko. Guztiz beharrezkoak dira hauek sexualitateak oraindik ere gizartean duen espazioa kontuan izanik.

7. Itxaropena eman eta zubiak eraiki

Eragileen diskurtsoan, hezitzaileek erakutsi beharreko ezaugarri gisa ondoak nabaritu dira: eskuragarri egotea, laguntzeko prest agertzea eta mezu positiboak helaraztea izan dira.

Informazioa eta formakuntza jasotzea adierazten ziren honen oinarri gisa. Hala ere, jarrerari lotutako dimentsioari garrantzi berezia ematen zitzaion.

Azken batean, informazioa edota ezagutza izanda ere, aurretiaz ezarritako helburuetatik irteteko malgutasun eza egongo balitz edo enpatia moduko gaitasunak landuta ez egongo balira, efektu negatiboak ere gailentzeko arriskua legoke.

Gainera, jarrera honek baimen dezake gutxiengoetako parte diren gazteengan konfiantza piztu eta hezitzailea ikustea zubi-lana egiten lagundu dezakeen norbait bezala.



8. Gazte batzuek egina gazte guztiei begira

Baliabide gehigarriez gain (dinamikak, materialak, intereseko elkarte zein zerbitzuak...), Gidari eskatu zaio **ulerterraza** eta **aurretiaz formakuntzarik ez duen edozeinentzat** egokia izatea. Hau da, **gazteentzat** material probetxugarria izatea.

Honetaz gain, aniztasun sexualaz bere **osotasunean** hitz egitea eta egoera desberdinak mahaigaineratzea ere beharrezkoa dela adierazi da.

Bukatzeko, mezuak ikuspegi **eraikitzaile eta positibotik** burutzea iradoki da, zailtasunak eta gatazka egoera posibleak kontuan izanik ere, baina beti **aurrerapausua** ematea helburu izanik.


3. Aniztasuna ulertzeko betaurrekoak



3.1. Sarrerako hiztegi laburra

Normalena izan ohi da hiztegia gehigarri modura gida nahiz bestelako testuen amaieran ezartzea. Ordea, gaiarekiko egon ohi den ezjakintasunak bultzatzen gaitu hasieratik gauza batzuk argitzera.

Jarraian luzatzen duguna “hiztegi labur” gisa izendatu dugu kontzeptuak era orokor batean definituko ditugulako. Honek baditu bere arriskuak, baina sakontasunez geroago aztertuko ditugunez, orain kontzeptuetara ohitzea eta sexualitateaz hitz egiterakoan entzun ditzakegun hitz desberdinak ezagunago bilakatzea dugu helburu.



OHARRA: *larrosaz azpimarratu* ditugunak sexologiaren teoriatik hartutako definizioak dira eta *urdinez* daudenak aktibismotik edota Gizarte Zientzietatik. Azkenik, *morez*, ezarri ditugu bietan erabiltzen direnak. Hauek desberdindu nahi izan ditugu batzuetan beraien abiapuntu teorikoak hain desberdinak izanik talka egiten dutela diruditen kontzeptuak ere sortzera heltzen direlako bakoitza bere kabuz. Ordea, kontzeptuak beste teorian kokatzeko zailtasunak badaude ere, garrantzizkoena da adieraztea bietan aniztasunaren defentsa dela eragile eta helburua.



- **Aniztasuna:** elkarrengandik desberdinak izaterakoan eta, bereziki, desberdina izatea ugaritasunez gertatzean ematen den egoera. Gida honetan aniztasun sexualaz hitz egiteko erabiliko dugu.

- **Asexuala:** erakarpenik sentitzen ez duen baina maitasuna senti dezakeen pertsona.

- **Bisexuala:** eredu dikotomiko batetik ulertuz, bi sexuekiko erakarpena senti dezakeen pertsona.

- **Cis:** identitate esleitua eta benetakoa (norberak sentitzen duena) komunean duten personak


- **Demisexuala:** erakarpena sentitzeko lotura emozionala bitarteko behar dituzten pertsonak.



- **Desiraren orientazioa:** desiraren joera identitate mota batekiko zuzentzera edota honen existentzia eza, eragiten duena desiraren orientazio homosexual, heterosexual edo bisexuala izateaz hitz egin ahal izatea.


- **Erotika:** desiren munduak erotika izena jasotzen du. Honetan sexologiak mota guztietako desirak sartzen ditu. Gehien gizarteratu diren kontzeptuak erabiliz, bai sexua eta bai maitasuna barne hartzen ditu, baina hauen artean gizarte mailan ikusi ohi den banaketa egin gabe eta beraien arteko harremana eta lotura azpimarratuz.

- **Esleipena:** kanpo eragileek ezarritako kondizio baten inposaketa norberarena egin behar dena. Hau gertatzen da identitatearekin, jaiotzerakoan esleitua baita eta ez da zain egoten pertsonak beraien sentimenduen arabera adierazi izan arte.



- **Gay:** desira orientazio homosexuala duten gizonak izendatzeko erabili ohi da gure testuinguruan, nahiz eta identitate politikoari ere erreferentzia egiteko erabilia izan den. Mundu anglosaxoiean sexu bereko pertsonarekiko erakarpena sentitzen duen pertsona oro izendatzeko erabili ohi da.




- **Generoa:** hitz honek hainbat esanahi ditu. Adibidez, identitateaz hitz egiteko ere erabilia izan ohi da. Ordea, gida honetan generoa esatean gizarte mailan esleitzen diren sexu bakoitzaren jarrera zein portaera idealez arituko gara. Esanahi hau lehenetsi dugu identitateaz hitz egiterakoan hitza bere horretan erabiliko delako, sexu edo genero hitzez laguntzea ekidinez, azpimarratzeko sentitzen den zerbaite dela eta ez inposatua.




- **Genitalak:** ugaltze sistemaren kanpo parteak. Gorputzeko atalik sentikorrenerakoena. Ohikoa izan da pentsatzea alua edota zakila (eta barrabilak) daudela soilik, baina badaude eredu gehiago ere.


- **Heterosexuala:** eredu dikotomiko batetik ulertuz, beste sexu identitateko pertsonarekiko erakarpena sentitzen dutenak. Hau da, gizonarekiko erakarpena sentitzen duten emakumeak eta emakumearekiko erakarpena sentitzen duten gizonak. Sexologian desiraren orientazio heterosexualaz hitz egin ohi da.

- **Homosexuala:** sexu identitate berdineko pertsonetik erakarpena sentitzen duena. Sexologian desiraren orientazio homosexualaz hitz egiten da.
- **Identitatea:** tradizionalki pentsatu da identitatea ezaugarri konkretu batzuen arabera eraiki dena dela, eta horrela ulertu da ere hemen lantzen dan gai honekiko. Ordea, identitatea da norberak bere sentimenduen arabera egiten duen atxikimendu boluntarioa kategoriatzeko.
- **Identitate Ez Binarioak:** emakume eta gizon kategoriatatik at kokatzen diren pertsonak.
- **Intersexuala:** bere gorpuzkeraren garapenean intersexualitate maila argiagoa erakusten duen pertsona, bereziki genitalek, gonadek eta gorputzeko beste hainbat ezaugarri erakusten duten itxuragatik (lehen “hermafrodita” hitzaz ezagutzen ziren pertsonak).
- **Intersexualitatea:** sexologian, gizaki guztiok barne dugun ezaugarria. Esan nahi du pertsona guztiok dugula feminitatea eta maskulinitatea gudan.
- **LGTBI+:** ondoko siglak barne hartzen dituen kolektiboa: lesbiana, gay, trans*, bisexual, intersexual. Gehi ikurrak adierazten du sigla bakoitzaren barruan dagoen pertsona moten pluraltasuna eta baita sigletan ez dauden beste kategoriatzeko batzuen barne-hartzea.
- **LGTBI+fobia:** aniztasunaren gutxiengoa diren pertsonen aurkako gorro eta beldurraz esaten da. Bereziki erabilia orientazio, izaera edota identitate arazoengatik bereizketa edo indarkeria dagoenean.
- **Lesbiana:** emakumeekiko erakarpena sentitzen duten emakumezkoak. “Gay” kontzeptua bezala, batzuetan identitate politikoaz hitz egiteko erabilia izan dena.
- **Matxismoa:** gizarte hierarkizazio eredu bat planteatzen duen ideologia non gizonezko cis eta heterossexuala eta honi lotutako balore maskulino tradizionalak gainbaloratuak diren, hala nola, honen ondoriozko jarrera eta portaerak.
- **Normatibitatea:** jendearengandik “espero dena” eta “normaltzat” jotzen dena. Sexualitatean arau eta eredu desiragarrian bilakatzen dena.
- **Pansexuala:** mota guztietako identitatez erakarria sentitzen den pertsona. Alegia, binarismo zurruna gainditzen duena eta Identitate Ez Binarioak adierazten duten pertsona erakarpena sentitzen duena.
- **Queer (teoriak):** Queer hitzak ingelesez “arraro” esan nahi du eta ohikoa izan da hau irain moduan erabiltzea sexualitate normatibo bat ez duten pertsonekin. Queer teoriak dira sexualitatearen normatibitateetik haratago aurkitzen diren gutxiengoak abiapuntu hartuz, genero eta sexualitateari buruz gogoeta egiten dutenak. Maltaxtasuna eta aniztasuna lirateke bi hitz klabe hauen barruan.





- **Sexismoa (edo: cisheterosexismoa):** sexua oinarri izanda diskriminatzea helburu duen ideologia, eredu batzuk besteen gainetik lehenesten dituen. "Cisheterosexismo" hitza erabiltzen da azpimarratzeko esleitutako identitatearekin bat ez datozen pertsonak eta heterosexuak ere zigortuak direla azpimarratzeko.
- **Sexua:** sexologian hitz hau erabili ohi da norberak sentitzen duen, alegia, norberak duen sexu-identitatea gisa (eta ez, esleitutako identitate edo genitalen sinonimo gisa).
- **Sexualitatea:** sexutuaa izatearen nolakotasuna.
- **Sexuazioa:** norbanakoen ezaugarri bakoitzak bizitzan zehar jasaten duen maskulinizazio eta feminizazio prozesua.
- **Trans*:** beraien burua "cis" kategoriatik at kokatzen duen jendea. Asteriskoak kontzeptuaren aniztasuna azpimarratu nahi du, izan ere, trans* pertsona beste definizio eta esperientzia daudela esan dezakegu.
- **Transgenero:** emakume eta gizon etiketa eta izaera tradizionalekin bat ez datozen pertsonak. Identitate zentzuan eta posizionamendu politikoaren zentzuan erabilia.
- **Transexual:** sentitzearen mailan, alegia, maila identitarioan gehiago zentratzen dira trans* pertsona hauek eta beraien burua esleitu ez zitzaien sexukoa dela adierazten dute. (eredu dikotomiko batean) Sexologian esan ohi da transexualitate egoeran daudela; beraien identitate sentimendua gainjarriz transexual izatearen gertakarira.



3.2. Ekarpen sexologikoak

Nahiz eta gidaren helburua den aplikagarritasuna eta praktikotasuna duen tresna bat izatea, beharrezkoa zaigu abiapuntu teoriko bat sortzea, era egokian uler dadin zer den aurkitu dezakeguna eta nola erantzun diezaiokegun. Horretarako, 30 urtez baino gehiagoz estatu mailan In.Ci.Sex Sexologiaren Institutuan osatu den teoria sexologikoaz hornituko da atal hau.

3.2.1. Ikuspegi berezi eta bereizia

Egun bai Sexologia eta bai Gizarte Zientziak sexualitatearen egoeraren analisi kritikoa egiten dute. Ordea, lehenengoan gailentzen den ikuspegia, lengoaia eta proposamena ezezagunagoak bilakatu dira.

Bigarren hauen garrantzia gutxietsi gabe eta hauen bitartez burutu diren ekarpenak txertatuz, Gida honen helburua da esku-hartzerako eta heziketa testuinguruetarako moldatua dagoen ikuspegi bat luzatzea. Hau dela eta, banako zein taldeen arretan ekimen esparrua duen Sexologia izango da oinarri.

1. Sexualitatea ulertzen sexologiatik

Sexologia sustantiboak, sexua gizaki orok atxikia duen nolakotasuntzat jotzen duenak, Giza Sexu Izatea ulertzeko marko propioa eskaintzen du. Alegia, gizaki orok bere ezaugarri guztietan sexuazio motaren bat jasan duela. Hau ulertzeko, **koloredun adreiluen etxearen adibideaz** baliatuko gara.



Pertsona oro etxe batekin aldera dezakegu. Pertsona guztiak adreiluz, alegia, hainbat ezaugarri eraikiak gaude. Ezaugarri hauek, bai fisikoak zein psikologikoak tradizionalki maskulinoak edota tradizionalki femeninoak jo ditzakegu. Kanpotik ikusita, pertsonak adreilu urdinez eta larrosaz eraikiak gaudela ikus dezakegu. Are gehiago, urrutitik oso larrosa zirudienak gerturatzerakoan baditu bere adreilu urdinak ere. Eta, gainera, larrosa eta urdinaren barruan milaka kolore tonu daude!



Gogora eza zu!

Tradizionalki femenino eta tradizionalki maskulino esaten dugunean esan nahi dugu:

- Gure jendarte eta testuinguru konkretuan, garai baten barruan emakumezkoetan edo gizonezkoetan gehiago ematen den ezaugarriak dira.

Larrosa eta urdina erabiltzen ditugu:

- Gure gizartean sexu batekin era argian harremantzen ditugun kolore bi direlako. Eta ez ezinbestean horrela harremantzen diren koloreak direlako.
- Adinik txikienekin lantzeko oso bisuala den adibide bat sortzen delako eta gerora hasiera batean badirudien irudi sinplean konplexutasuna sartzea errazten digulako.

ORDEA, GARA ESATEN ARI:

- Ezaugarri horiek emakume edo gizon egiten gaituztenik. Bakoitzak bere identitatea du eta bere ezaugarriek bere izateko era konkretua eraikitzen dute.
- Femeninoagoa izatea dagokiola emakumezkoei eta maskulinoagoa gizonezkoei. Ezta soilik emakumeei dagokiela feminitatea eta gizonezkoei maskulinitatea.
- Ezaugarri hauek denbora eta lekuetan zehar berdin ulertuko direnik.
- Gainera, ezaugarriok ez dira ez betierekoak ez aldaezinak. Ezaugarri guztiek malgutasuna dute eta gure bizitzan zehar eraldatuz joan daitezke. Hortaz, bai gorpuzkera, portaera zein jarrera ezaugarriek eraldaketak jasan ditzakete.

ALEGIA:

- Ezaugarriek jasan duten sexuazioaz antzeman ditzakegunak pistak baino ez dira. Ez dira inondik inora norbaiten identitatearen erakusle.
- Hau da, **NORBERAK** adierazi eta definitzen du bere identitatea.
- **GUZTIOK** ditugu ezaugarri femenino zein maskulinoak, gorpuzkera, portaera eta jarreran.
- Are gehiago, **ALDERAKETAREN ARABERA**, adreiluen koloreak asko eralda daitezke.
- Izan ere, adreiluen kolorearen batura **MOREA** da. Guztiok baititugu ezaugarri horiek izateko gaitasuna.
- Azken batean, ikuspegi honek 100%ean femeninoak diren emakumeen eta 100%ean maskulinoak diren gezur edota estereotipoa desegiten laguntzen digu. Honen aurrean, guztiok guregan ditugun garapen biografikorako aukeren atea irekiz.


Sexuazioa, beraz, gure bizitzan zehar bizi dugun eraldaketa geldiezin da, era biografikoan ematen dena. Honetan, estimulu mota desberdinak jasotzen ditugu eta ezaugarri batzuk ere gure inguruan indartu edota bultzatzeko gaitasuna dugu. Nolabait, gure izaera, alegia, emakume eta gizonezko izateko era, malgua baita.

Hortaz, sexualitatea, **nolakotasun** bat da. Sexutuak izatearen ezaugarri ukaezina. Ezaugarri sexutu hauek izanik, norberak eraikitzen duelarik, bere **identitatea** konfiguratuko duena eta **norberak** bere burua izendatzen duelarik.

Nolakotasuna izateak ezinbestean dakar **sexualitatea ez** dela **ekidin** daitekeen zerbait, baizik eta gure bizitzan egoteko era bat erakartzen duela. **Gertatzen den eta ematen den egoera bat baino ez da**. Hala izanik, **balore** gisa ulertua izan daiteke: **lantzeko balore bat**. Norberak bere sexualitatea landuz bere izaera konposatzeko tresna gehiago izango baititu.

Gainera, honek ondoko ondoriora garamatza: bi pertsona berdin ez dauden bezalaxe, ez daude gizon eta emakume izateko bi era berdin. **Pertsona beste sexualitate eredu daude**.

Gauzak horrela, hezitzaile papera hartzen dugun gizarte eragile desberdinen **zeregina** da **pertsona bakoitzari bere sexualitatea eraikitze** **akonpainamendua egitea**.





Baina, non gelditzen da generoa guzti honetan?

Galdera honi erantzun aurretik, “genero” hitza definitzetik hasi behar gara. Horretarako, kontuan hartuko dugu 2016ko udan Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “Pertsona Transexualen Arreta Integralerako Gida”ren Glosarioan agertzen den definizioa.

Generoa: gizartearen eta kulturaren arloetan sexu batekin edo bestearekin lotzen diren portaera, jarrera, adierazpen eta/edo balioen multzoa

Horrela ulertuta, generoa kanpotik inposatua egongo litzateke. Hau da, sexuazioaz, edo banakoen prozesuez, baino kanpo erreferenteez hitz egiten gaudela. Hau da, ideologia konkretu batez hitz egiten ari gara, norbanakoaren prozesua era batekoa edo bestekoa izatea gustuko izango lukeena.

Hala ere, sexologiaren ekarpena feminismoaren aldarrikapenekin bat eginik joan daiteke arazorik gabe, bietan pertsonaren subjektu izateko eta bere bizitzaren eragile izateko gaitasuna azpimarratzen da. Bi kasuetan identitate, izaera, eta orientazio aniztasunaren aldeko diskurtso bat dago. Hain zuzen ere, lehenengoaren kasuan (sexologian) ekidiezina den errealitate gisa aurkezten den bitartean, bigarrengoan (feminismoarenean) hau garatzeko gutxieneko baldintza eta eskubide batzuk aldarrikatzean zentratzen da.

2. Aniztasunaren kontzeptu sexologikoa

Feminismoak bereizketa eta indarkeria desberdinak ikusarazteko tresna teoriko zein politikoa dira. Horregatik errealitate normatiboez eta ez normatiboez hitz egiten dute. Era honetara, “normak” dioena azaleratu nahi izan baita, agerian utziz normatibitateetik at dauden errealitate guztiak jasan ditzaketen bereizketa egoera sotil eta gordinagoak.

Ordea, sexologiaren helburua da arreta eskaintzea eta norbanakoak ulertzea, horregatik aniztasunaz hitz egiterakoan ez du salaketa ikuspegi batetik egiten. Horrela, aniztasuna sexualitatearen berezko ezaugarritzat defenditzean zentratzen da.

Pertsona beste sexualitate daude. Hortaz, aniztasuna ez da salbuespena, ohikoa baizik.

3.2.2. Hiru kontzeptu erabilgarri: Identitate, izaera eta orientazioak

Jarraian dauden kontzeptuak EGKren berdintasun lan arloan erabiltzen diren kontzeptuak dira eta ikuspegi sexologiko eta feministaren arteko lotura baimentzen dute.

1. *Identitateak*

Hitz hau zaila da definitzen esaldi oso eta bakar batez. Hau dela eta, definitu aurretik lerro batzuk emango dizkiogu “sexu” hitzaren polisemiari, honek efektuak baititu “identitatea” kontzeptuaren ulerkeran ere..

“Sexu” hitzaren polisemia eta bere ondorioak

“Zer da sexua?” Ah ze galdera erraza... baina zaila aldi berean erantzun bat emateko! Sexuaren esanahiaz galdetzen dugunean edota honi erlazionatutako hitzen zerrenda eskatzen dugunean, oso esanahi desberdinak dituzten hitzekin egiten dugu topo.



Hitzak nagusiki hiru esanahi-multzotan bana ditzakegu:

EGITEN dugun sexua

Egiten duguna diogunean erotikaren eta hedoniaren munduaz ari gara. Alegia, fantasien eta desioen elkar topaketaren eremura.

Sarritan, gehiegitan, “genitaletara” murrizten dugu ekite erotikoaren aukera.

Hala, psikoanaliaren aita izan zen Freuden ikuspegi murriztera bueltatuz, badirudi erotikan “hain garrantzizkoak” ez diren keinuak eta praktikak (Freuden hitzetan, “aurretiazkoak”) egongo liratekeela. “Garrantzi gutxiagokoak” izanik, hauek ezin izango lirateke “sexualak” izan.

Ordea, sexologiaren ikuspegitik desiren mundu mamitsua eta anitza genitalen estimulaziora murrizteak ez du ez hanka eta ez bururik. Izan ere, sexologiatik, ezinezkoa da praktikak berak sailkatzea eta hierarkia bat eraikitzea. Sexologiaren helburua eta, ondorioz, sexologian oinarritzen den heziketaren helburua da **norberaren plazeraren formularen eraikuntza erraztea baita.**

Gorputza + zentzumenak + gehigarriak (sentimenduak, testuingurua...) = **plazera**

Sexologiarentzat hau ez da “sexua”, ezta “sexuarekinegiten duguna”, baizik eta desiren topaketaren eremua, hain anitza izan daitekeena dauden topaketa kopurua beste.

Hau da, **EZ daude identitate, izaera edo orientazio batek berezkoak dituen praktika edo keinu erotikorik.** Sarritan, bereziki LGTBI+ kolektiboaz gogoeta egiterakoan, badaude pertsona batzuei esleitzen dizkiegun praktikak edota beraiegandik aurretiaz espero ditugunak. Hauek aldeaz aurretik guk geuk ditugun aurreiritzi, estereotipo edota sinesmenengatik irudikatutakoak dira.

Hau da, aurretiaz ezin jakin dezakegu zein den pertsona bakoitzak dituen desirak eta hauek aurrera eramateko nahiago dituen erak.

DAUKAGUN sexua

Bigarren esanahi honetan ere murrizketa bat ematen da. “Daukagun” sexua izan zitekeen ditugun ezaugarri sexutu guzti horien batura. Baina ez.

Jendeak duen sexuaz hitz egiterakoan, eta hori argi gelditzen da kaleko hizkuntza aztertzen dugunean, genitaletara murriztu izan ohi da.

Zentzu hau ezin zitekeen, berriro ere, okerragoa izan. Ez soilik murrizta delako, baita gizarte mailan “garen” sexuarekin alderatu izan ohi delako. Zenbatetan entzun dugu “emakume jaio zen baina gizonezko bihurtu nahi du” edo “emakume baten gorputzean giltzapetua dagoen gizonezkoa da”?... Zer esan ote nahi dugu? Badirudi nahiko argi dagoela.

Jaiotzerakoan edo, lehenengotariko ekografiaren bat egitean, medikuak gure genitalak begiratzen ditu eta identitate bat esleitzen digu. Hala, genitalak beste ezaugarri bat gehiago izan ordez, identitatearen isla izango liratekeen ezaugarri bilakatu ditugu. Horrek gerora erakar ditzakeen arazo guztiekin.

Ez dira soilik pertsona transexualak beraien izaera arazo bilakatua ikusten dutenak sexualitatearen ulerkera honengatik. “Gizontasuna” eta “emakumetasuna” hein handi batean ere genitaletan kokatu izan dugu historian zehar. Alegia, gure identitatearen egokitasuna epaitu nahi izan dugu gure gorputz atal baten itxura edo funtzionamenduagatik. Esan digutelako eta sinetsi dugulako “ezaugarri sexuatzaila” (identitatea sorrarazteko gai) omen dela. [eliminar] Izan ere, sexualitatea eta ugalketa nahasten dituen kultura testuinguru batean jaio izan garelako.

Ordea, genitalak sexutzen diren beste ezaugarri bat baino ez dira. Ezaugarri hauek ez dute gure identitatean eragiteko gaitasunik. Gertatzen dena da gure identitatea definitzeko gaitasuna dutela dioen gizarte uste horrengatik gure ongizatean eragiteko gaitasun izugarria eman diegula.

GAREN sexua

Sexologia sustantiboaren ikuspegitik “sexua” hitza erabiltzerakoan **“GAREN sexu”** honetaz hitz egiten da. Hala ere, eta aurrekoarekin jarraiki, ez da arraroa jendeari sexu honetaz hitz egiterakoan “sexu biologiko” gisa ulertu izan duguna burura etortzea. Alegia, berriro ere, identitatea genitaletan kokatzea. Ez da hau sexologiaren apustua, ordea.


Hortaz, **GAREN** sexua ez da esleitu diguten hori, ezta ere gure ezaugarri konkretu batetik eratortzen den identitate eta nolakotasun hertsia bat. Baizik eta, guk geuk adierazten dugun identitate hori.

Esparru honetan, azken hamarkadetako gogoetek eta aktibismo desberdinek sakonki kritikatu dute pentsamolde sexista eta genitaletan oinarritutakoa edota cisheterosexismoa.

Ondorioz, kontuan izan beharko dugu identitateari dagokionean gero eta aniztasun zabalagoa dagoela eta errealitate berriak eraikitzen ari den gazteri eta gizarte baten aurrean gaudela.

Mapa kontzeptuala

Errealitate guzti hauek ulertzeko, jarraian dagoen mapaz baliatuko gara:



Historikoki mendebaldar kulturak bi identitate jo izan dira onartat: emakume eta gizon. Are gehiago, orain arte haur eta enfasia berezia jarri dugu gidan estrategikoki nahasmen gehiegi ekiditeko. Ordea, egun identitateen eraikuntzarako kulturaren papera azpimarratu da ere, errealitate berriak sortuz.

Azken hauek, nahiz eta oso anitzak diren, "Identitate Ez Binario" aterkipean aurkeztuko ditugunak dira. Momentu honetara iritsita, galdera ekidiezina da: nola desberdindu Identitate Ez Binarioa duen pertsona bat Emakume edota Gizonetako batengatik?

Sinplea baina nahasgarria era berean da erantzuna: **galdetuz**.

Hau argi utzita, jarraian gorago dugun mapako kontzeptuak azalduko ditugu:

Emakume eta Gizonezkoak

Emakume eta gizonezkoak diogunean soilik ulertu behar ditugu bere burua identitate batean edo bestean kokatzen dituzten pertsona horiek, ez besterik. Ordea, ezin dezakegu ezikusiarrena egin bizi garen testuinguruaren aurrean. Oraindik ere baitirau jaiotzerakoan (edota jaio aurretik) sexua, ondorioz, identitatea esleitzeko joera.

I.E.B.

Identitate Ez Binarioak lirake, edozein delarik beraien izaera, Emakume edo Gizon modura posizionatzea errefusatzeko dutenak.

Honetarako arrazoiak anitzak izan daitezke: beraien izaera konkretuaren ikusgarritasunaren aldeko apustua egin dutelako, Emakume edo Gizon modura norbere burua aurkezteak nolabait jada bere izaeraren, alegia, rolen murrizketa dikotomikoa barne eramaten duela ulertzen dutelako...

Hain anitza izanik esparrua, pertsona ez binario beste behar konkretu egon zitezkeen atal honetan. Hortaz, ezin ditzakegu aurretiaz arretarako beste irizpiderik eman, kontuan izateaz gain; arreta dezente izan daitekeena historikoki egon den joerarekin alderatzen badugu.

I.E.B. aterkipean errealitate anitz aurki ditzakegu, hona hemen batzuk: genderqueer, ageneroa, transgeneroa,...


Aurrean daukagun pertsonaren arretan funtsezkoena identitatea bada ere, badaude izugarri balditzaileak diren ezaugarri batzuk tradizionalki identitateak ulertzeko egon den eragatik (eredu dikotomiko batetik eta izaera posible bakar bat izanik bakoitzak). Jarraian ezaugarri baldintzaile horiek azalduko ditugu, batzuetan identitate gisa ere biziak direnak:

Cis

“Cis” pertsonatzat jotzen da jaiotzerakoan esleitutako identitatea eta sentitzen duena bat datozenean. Alegia, medikuek erabakitzen dutena ez datorrenean kontraesanean pertsonak sentitzen denarekin.



Beharrezkoa al da identitate tradizionaletako bat aukeratzea?" Da Identitate Ez Binarioak dituzten pertsonak planteatzen duten galdera



Trans*

Kasu honetan, I.E.B.-ez hitz egiten dugunean bezala, aterkipean kontzeptu anitz sartzera derrigortuak ikusten dugu gure burua. Izan ere, badaude gutxienez hiru errealitate mota “Trans*” aterkipean kontuan izan beharko genituzkeenak:

- ***Transexualitate egoeran dauden pertsonak eta transgeneroak***

Jarraian daukagun afera nahiko konplexua da, izan ere, “Trans*” munduan bertan eztabaida puri-purian dago. Hortaz, nahiz eta pista batzuk emango ditugun, gure azken gomendioa da beti ere egoera bizi duten pertsonen galdetzea.

Ez dago oso argi zein den transexual edota transgenero izatearen muga, definizioak kontsultatzerakoan irizpide oso desberdinak aurkitzen baititugu. Hortaz, aukera anitzak era sinplean aurkeztuko ditugu.

Lehenik eta behin adieraztea sexologian transexualen baino, transexualitate egoeran aurkitzen diren pertsonen hitz egin ohi dela. Pertsona hauek dira beraiei esleitutako identitatea eta beraiek dutena bat ez datozela adierazten dutenak. Honen ondorioz, beraiek sentitzen direneko sexu horren arabera tratatuak izateko eraldaketa prozesu bat hasten duten pertsonak dira hauek (ez duenak zertan bat egin behar osasun sistemaren barruan ematen den prozedurarekin). Prozesua bai pertsonala eta bai gizarte mailakoa da. Alegia, transexualitate egoeran dagoen pertsona bakoitzak erabakitzen du bere gorpuzkera eta bere gizarte mailako adierazteko era zein mailara arte aldatzen duen, jarraian sinplifikatu ditugun pausuak izanik eraldaketa prozesu honetako pausu desberdinak:

- Bere identitate sentituarekin aurkeztu testuingururik gertukoenean.
- Nahiago dituen adierazpide eta izaera garatzen joatea. Askotan debekatuak izan dituzte adierazten zuten sexu horri lotzen dizkiogun jarrera zein portaerak eta hauek garatuz joan daitezke (janzkera, kirolak...).
- Gorputzaren eraldaketa eta dokumentu ofizialetan sentitzen duten sexua agertzea: bi pausu hauek lotuta doaz gorpuzkeraren eraldaketa maila bat derrigorrezkoa delako egun dokumentu ofizialen eraldaketa lortzeko.

Dokumentu ofizialen eraldaketa lortzeko, bi urtez hormonak hartzen egon beharra dago. Ordea, Euskadin, behin prozedura medikua hasia, behin-behineko dokumentazio ofiziala eska daiteke 14/2012 Legean adierazten den bezala.

Zein da pertsona transgeneroekiko desberdintasuna? Hemen dago koska.

Lehenik eta behin kontuan izan behar dugu mundu anglosaxoian ohikoa dela “gender” (genero) hitza “sexu” hitzaren, alegia, “identitatearen” zentzu berdinean erabiltzea. Ondorioz, nolabaiteko “itzulpengintzako arazoa” dugu ere tartean.

Hala ere, badirudi faktorerik garrantzikoena litzatekeela izen baten edo bestearen aterkipean ezartzeko “sexu-genero” dikotomia desmuntatzeko esfortzu berezian azentua jartzea ala ez. Alegia, sexologiaren arlotik edota posizionamendu politikoaren arlotik eraiki ote duen bere diskurtsoa.

Dena dela, eta gida honen helburu den heziketa testuinguruan kokatuta, garrantzikoena da pertsona hauek ez datozela bat esleitutako identitatearekin eta, ondorioz, beraien identitatea konfirmatzeko eta ezagutzera emateko prozedura bat beharrezkoa dutela.


- **Trans**


Definitua dena ez omen da definizioan sartzen, baina kasu honetan “aterki kontzeptua” berrerabiltzera derrigortuak ikusten gara, nahiz eta kasu honetan, izartxo (*) alde batera utzi dugun. Gero eta arruntagoa

da aurkitzea esleitutako identitateari, printzipioz, “dagokion” genero portaerak errefusatzeko dituzten pertsonak. Ondorioz, trans kontzeptuaren barruan kokatu daitezke Emakume eta Gizonezko “dagozkien” derrigorrezko izaera hertsiaeren aurka posizionatzen diren pertsona hauek.

Hiru kontzeptu hauek ikusita, gogoraraztea hauen agerpenerako hainbat argumentu daudela. Tartean dago Lucas Plateroren ikuspegia, defendatzen duena, trans eta transgender kontzeptuak mundu medikutik at sortuak direla eta norbanakoaren autoizendatzerako estrategiak azaleratzen dituztela.

Dena den, kontzeptu zabal honen alderdirik interesgarriena da, aurretiaz aipatutako autorearen esanetan: “borroka komunak izan ditzaketela, aldi berean aitortuz beraien artean desadostasuna sortzen dituzten gaiak daudela eta trans* izateko ikuspegi bakar bat ere ez dutela defenditzen” [Lucas R. Platero. Pikara Magazine. <http://bit.ly/1KhVUdG>].






Pertsona Intersexualak

Zer gertatzen da bai ekografian edota jaiotze momentuan agertzen diren genitalak ez direnean ohikoagoak direnak bezalakoak? Hau litzateke pertsona intersexualen kasua.

Pertsona hauek beraien sexuazio prozesuan maila genetiko edota gonadal zein genitalean ez dute prozesurik ohikoena bizi izan. Ondorioz, ez dituzte (medikuek esango luketen bezala) “ugalketa aparatua osoak eta funtzionalak”. Gogoratzeko nola esaten guden pertsona guztiak gure intersexualak? Tira ba, kasu honetan, bai maila genetiko, hormonal zein genitalakotan intersexualitate puntua sexuen kontinuumaren erdi alderuntz ezartzen dela esan dezakegu.

Gehiengoa ez gara ez oso femeninoak ez oso maskulinoak gure ezaugarriei baera begira



Hauek dira medikuntzaren munduan jaso izan diren kategoriatzuk:

- ***Klinefelter sindromea***

XXY kromosoma hirukotea duten pertsonak. Alegia, ohikoa dena baino kromosoma bat gehiago dutela 23. kromosoma bikotean eta posible diren bi kromosomak dituztela.

Honek gonada zein genitalen eragina du, bereziki deigarria izanik hainbat kasutan gonadak ez direla guztiz eratzen eta, ondorioz, etorkizunean antzutasuna garatzea posible izanik.

Egoera honetan dauden pertsona askok beraien identitatea gizon identitate gisa eraikitzen dute. Hau da, sexologikoki hitz eginda, sindrome hau dutenen artean gizon gehiago aurkitu ohi dira..

- ***Turner sindromea***

Egoera honetan aurkitzen direnak ez dute bigarren kromosomarik azken bikoten, alegia (XO). Antzutasuna, gonada eza eta genitalen eraketa konkretu bat sorrarazten du sindrome honek, izan ere, gonadek sortzen dituzten estrogeno gehigarriak faltako lirateke kasu honetan.

Kasu honetan ere badago gehiago agertzen den identitate bat, emakumezkoena izanik..

- **Morris sindromea**

Oraingoan, maila genetikoak baino, etorkizunean gonadek sortuko dituzten hormonekiko sentikortasun eza datza sindromearen klabea. Pertsona hauek dira androgenoekiko sentikortasun eza dituzten pertsonak. Gauzak horrela, hasiera batean gorputz horretatik espero zitekeen maskulinizazioa ez da ematen.


Sindrome hau dutenen artean emakumeak gailentzen dira identitateaz hitz egiten badugu..

Azken batean, zer gertatzen da pertsona hauekin eta gure berrikusketa kritikoa eginik kultura modura sexologiatik? Eguneroko diskurtso, formakuntza zein ekintzek esan digute bi gorpuzkera mota zeudela eta errealitatea hori baino anitzagoa da.

Ohikoagoak diren genitalak



Beste genital mota batzuk




Ordea, sistema cisheteroexista zalantzan jartzeko zuten botereagatik ezkutatuak eta eraldatuak izan dira historian zehar. Egun, ez dago protokolorik ez gida zein jarraibiderik intersexualitate mota honetako pertsonak jaiotzen diren egoeretarako. Ondorioz, familia eta medikuen eskuan jarraitzen du zer egitearen erabakia hartzeak ala ez.

Nahiz eta egun badauden esku-hartze medikuaren aurkako mugimenduak, jakin badakigu oraindik ere ikusgarritasun falta bat dagoela eta hori hein handi batean gorputz hauen eraldaketaren bitartez lortu dela.

Gainera, gorputzak “arruntagoak” diren ereduetara moldatzeko apustua egiten denean, estetika eta itxurazko “funtzionaltasuna” gailendu izan dira. Beste era batetara esanda, ikuspegi heterosexistara moldatzen den gorpuzkera eraikitzea. Hau guztia norbanakoek adierazten duten identitatea zein den jakin aurretik egin ohi da, hauek txikiak (baita haurtxoak) direnean. Hau beraien “normaltasun” horrek “gizarteratzen lagunduko diela” argudiatuz egiten da. Horrela, identitatea esleitu egiten da, horrek erakar ditzakeen zailtasun guztiekin..

*Historian zehar
pentsatzen zenez
emakume eta gizon
izateko era bakarrak
zeudela, izateko era
hauetara moldatzen
ez ziren gorputzak
aldatuak izan dira.*



Gainera, kasu batzuetan gorputz eraldaketa hauek bizitza osorako min eta ondoezak erakartzen dituzte, estetika eta “normaltasuna” (estatistikoki arruntagoak diren genitaleri moldatzea) izan delako helburu nagusia eta ez norbanakoen ongizatea bera.

Edozein delarik testuingurua, gorpuzkeran eraldaketa kirurgikoak eta bestelakoak jasanda ala ez, kontuan izan behar dugu seguruenik pertsona hauek bizipen espezifikoagoak izan dituztela eta beraien identitatearen garapenean laguntza gehigarri konkretuak behar izango dutela, agian.

Adibidez, “intersexualitate” gisa ezagutzen ditugun kasu hauen gehienek antzutasun biologikoa eragiten dute. Hortaz, familiak eraikitzekeko eredu desberdinez eta bizitza proiektu aniztasunaz hitz egiteko aukera ematen du gaiak. Hala nola, norberaren ongizate eta gorputzarekiko harreman asebetegarria lehen planoan ezartzera garamatza. bigarren maila batean utzita “normaltasun estatistikoa” eta berau ere zalantzan ezarrita.

Kontuan izan dezagun sexologian intersexualitatea guztiok daukagun ezaugarritzat jotzen dela, pertsona guztiongan aurki baititzakegu ezaugarri maskulino zein femeninoak. Ordea, gure gizartean bereziki problematikoak bilakatu dira genitalak, azken batean, historian zehar berebiziko garrantzia izan dutelako familiaren jarraipenerako tresna modura. Ondorioz, ezinbestekoa

zen “familia era biologikoan” eta “erlijioaren oniritziz” sor zezaketen bikoteak eraikitzea.

Errealitate hau ezkututzen eta gutxiesten jarraitzea, ondorioz, egoera anakronikoa da eta eraldatzen hasia izan behar dena.

Bukatzeko, eta hona hemen “milioiaren galdera”: “Baina... pertsona intersexualak, zer dira?” Hasteko, eta inozoa badirudi ere, gizakiak. Ondorioz, beraien eskubide osoko hiritartasuna garatzea bermatua izan behar duten pertsonak. Eta... maila identitarioan? Bakoitzak esan beharko du zein den, kanpotik soilik estatistikez eta joerez hitz egin baitezakegu.

Konposizio posibleak

Hau ikusita, ondoko galdera egiten dugu: jakingo al zenuke zeintzuk diren aurretiaz azaldutako identitateen arteko konposizio posibleak? Batu itzazu zutabe bat eta bestean dauden aukera guztiak!

<i>Emakume eta gizonak</i>	<i>Emakume eta gizonak</i>
<i>Cis</i>	<i>Cis</i>
<i>Transexualak eta transgeneroak</i>	<i>Transexualak eta transgeneroak</i>
<i>Trans*</i>	<i>Trans*</i>
<i>Intersexualak</i>	<i>Intersexualak</i>
<i>Identitate Ez Binarrioak</i>	<i>Identitate Ez Binarrioak</i>

ERANTZUNA:
1-1.2.3.4.5-2-1, 3-1,3,4,6, 4-1,2,3,4,5,6, 5-1,6, 6-3,4,5,6.

Hortaz, garrantzizkoa izango da hezkuntzan egunerokotasuneko harremanen eta ekintzen kudeaketarako eta aurreikusita ditugun ekintzen diseinu eta antolaketarako parte-hartzaileen identitatea jakitea.

Bestalde, bigarren maila batean, garrantzizkoa izango litzateke jakitea zein garapen ibilbide izan duen. Izan ere, pertsona trans*, eta intersexualek cisek bizi ez dituzten beste hainbat egoerei aurre egin behar diete..

2. Izaerak

Izaerez hitz egiten dugunean nahi beste zabalera har dezakeen esparru batean mugitzen ari gara.

Sexologiaren ekarpenei jarraiki, behin baino gehiagotan azpimarratu dugu ezinezkoa dela 100%ean femeninoa den edota 100% maskulinoa den pertsona bat aurkitzea.

Hortaz, lehen azaldu dugun adreiluen adibideari lotuta, ezinbesteko garrantzia du egunero ikus dezakegun aniztasun honek, begi bistatik ihes egin ohi digunak arreata ezartzen ez badiogu.

Maskulinoak eta femeninoak diren portaera hauek berebiziko garrantzia hartzen dute ikusarazten digutelako soilik “genero haustura” batzuek pizten dizkigutela gure alertak eta alarmak..



Adibidez, jarraian dauden egoeretatik... zenbatek deituko lukete zure arreata? Erantzun iezaiozu zure buruari zintzotasunez:

- *Neska batek futboleak aritu nahi du beste mutilekin*
- *Mutil batek ekimenen arteko deskantsuetan neskekin pasatzen ditu orduak eta ez da apenas mutilekin harremantzen*
- *Inauteriak ospatzen ditugu eta mutil bat agertzen da, printzesaz jantzita eta denbora osoan telebistako sailetan ikusten dituen marrazkietako printzesak imitatu ditu*
- *Neska bat egunero “mutil” gisa jantzita agertzen da eta etxean ilea motz eramateko bere nahia adierazten duela badakigu*
- *Txango bukaeran playback-a ospatuko dugu eta mutil batek “Violeta”z mozoraturik abestu nahi du*

Nahiz eta malgutasunaren aldeko lana egin eta inposatutakoak diren rola gero eta gehiago kritikatu, oraindik ere lan asko dago egiteke.

Honengatik sartu nahi genuen izaeraren aniztasuna epigrafe bereizi batean, uste dugulako berebiziko garrantzia duela aniztasunaren zentzu malguaz eta zabalaz kontzientzia hartzea, bakoitzak oraindik ere harritzen dizkion aniztasunaren adibideei buruzko gogoeta egin dezan.

Nahiz eta aurretiaz bereziki jarrerak eta portaerak nabarmendu ditugun, hemen ez gara ari Gizarte Zientzietatik “genero” gisa izendatua izan den hortaz. Ez behintzat bere esparrurik tradizionalenean.

Queer teorien ekarpenari jarraiki, gorpuzkerek duten malgutasuna ere azpimarratu beharra dago. Alegia, ez da gure portaera eraldatzen den bakarra, jendaurrean erakusten dugun izaeraren alderik fisikoena ere malgua baita.

Ordea, hala ulertuta, zergatik ez dira trans* eta intersexual errealitateak maila identitariotik atal honetara pasa? Kontuan izanik errealitate hauek oraindik ere duten ikusgaitasun falta eta honi estuki lotutako eskubide osoko hiritartasuna garatzeko zailtasuna, identitate politiko gisa duten pisua ere azpimarratu nahi zen. Ordea, nahiz eta gero emakume, gizonezko edota P.E.B. (Pertsona Ez Binario), gisa aurkeztua ere, beraien gorpuztasuna delako beraien behar konkretuen baldintzatzailea eta honek sorrarazten dituelako premia eta eskaera konkretuak.

Hortaz, izaera bezala ulertzen dugu bakoitzak duen garapen konkretua bere ezaugarri femenino eta maskulinoekin..


3. Orientazioak

Orientazioaren esparrua ere bada konplexuago bilakatu zaigun arlo bat. Hau dela eta, aurreko ataletan egin izan dugun bezala, aniztasunaren aldeko mugimenduen ekarpenak eta ekarpen sexologikoak erabiliko ditugu hemen.

Aniztasun sexualaren aldeko mugimenduen ekarpenak

Analisi feminista da mugimendu hauen abiapuntu nagusia. Gizarte mendebaldrarean familia eredu bat gailendu da eta hau min zezakeen eredu oro kokatzen da normatibitateatik at.

Orientazioei dagokionez, ezagunak dira LGTBI+ sigletan batzen diren errealitateak: lesbianak, gayak eta bisexualak. Ordea, azken urteotan hainbat posizionamendu berri agertu dira. Ikus ditzagun batzuk:



Ez da fase bat

Batzuetan uste da asexualitatea edota aerromantizismoa arazo psikologikoen ondorio direla. Ordea, ez dira desiratzeko beste era bat baino besterik, ezta gutxiago ere.

Orientazioa binarismotik at: Pansexualitatea

Argi dago Emakume-Gizon eraikuntzarik dikotomiko eta hertsienak txiki gelditu direla eta honek sorrarazi du beste hainbat kolektiboengan ere arreta ezartzea.

Horrela, “pansexualitatea” agertu da kontzeptu gisa. Pertsona pansexualak izango lirateke, ondorioz, “edozein identitaterekiko” erakarpene sentí dezaketenak.

“Sexuala” eta “erromantikoa” atzizkien agerpena

“Asexualitatea” moduko kontzeptuak ere gero eta ezagunagoak bilakatzen ari dira, baita jarrera “erromantikoarekiko” orientazioa edo joera erakusten dutenak ere (adib: aerromantizismoa).

Baina, kontzeptu bakoitzaren definizioan zentratu ordez, pentsa dezagun orain: zer azaleratzen digu hainbeste kontzeptu berrien beharrak?

Identitatearen arloan gertatzen zen bezala, gure gizartean gailendu diren “derrigortasunen” kritikarako baliabideak dira. Sexualitatea ulertzeko pertsona beste modu daudela azaleratzen baitigute, eredu konkretu bat inposatzearen joeraren aurrean.

Aniztasun sexualaren aldeko mugimenduak jada apustua egingo du gero eta bizimodu eredu anitzagoak erakustearen alde. Pertsona bakoitzak bere berezitasuna erakustearen alde kokatzen da eta hitz guzti hauek apostu desberdinak ikusgai bihurtzeko agertzen dira. Eta, nahiz eta sexologiak kontzeptu gisa ez partekatu, garrantzizkoak dira aniztasuna bultzatze aldera.

Ekarpen sexologikoa

Eta honen guztiaren aurrean, zer dio sexologiak? Jarraian azalduko dugunaren ikuspegia hobeto txertatzeko, gogoraraziko dugu sexologiaren funtsa ez dela posizionamendu politikoa, baizik eta norbanakoei zein taldeei zuzendutako arreta. Ondorioz, sexologiaren markoan oso era desberdinean uler eta izendatu daitezke, errealitateekiko begirune osoa gordez, hala ere.

Hasteko, sexologian, bai gizartea ulertzeko eta baita esku-hartzerako tresna gisa, ez da ulertzen “identitate heterosexual” edo “identitate homosexual”ez hitz egin daitekeenik.

Honen ordez, desiraren orientazio sexualaz hitz egiten da. Azken batean, desira baita nahiago dituen batzuk ala besteak. Eta horra hor lehenengo koska: nahiago izatea. Ziurtasun osoz esan dezakegu pertsona guztien fantasia, desira, harreman, esperientzia... guztiak ez direla beti orientazio berdinarekin suertatzen.

Honen bitartez ez da sexologiaren helburua identitate politikoak desmuntatzea, baizik eta errealitatean gertatzen den baina isilean mantentzen den gertakari bat

mahaigaineratzea. Errealitate honek baimentzen baitigu gure ohiko posizio itxietatik irten, zubiak eraikitzea eta beste orientazioak ulertzea.

Malgutasuna eta orientazioa:

bikote banaezin bat

Oraindik ere pentsatzen baduzu halako malgutasunik ez dela ematen, erantzun iezaiozu zure buruari zintzotasun osoz (jarraian dauden galderak soilik identitate bakar batenganako erakarpena duten pertsonentzat da baliagarria):

- Noizbait, txikitan eta nerabezaroan bazen ere, ohikoa duzun orientaziokoa ez zen norbait musukatu edo laztandu al duzu?*
- Eman itzazu bost minutu zure fantasietan pentsatzen: beti orientazio berdina agertzen al da?*
- Inoiz ez al duzu zure ohiko orientaziokoa ez den norbait desiratu?*

Gainera, sexologian **“desiraren orientazioaz”** hitz egiten da eta ez orientazio **“sexual”** eta **“erromantikoaz”**. “Sexua-maitasuna” antagonismoak ez duelako laguntzen desirak sorrarazten dituen egoeren ugaritasuna ulertzera. Gainera, era honetan, elkarrekikotasunean oinarritutako desira guztiak baloreen jartzen dira, hierarkiarik gabe.

3.3. Gutxiengoetatik eta aniztasunera: begirada aldatuz

3.3.1. Aniztasuna zeharkako gisa

Gida honen oinarri diren diskurtsoen arteko distantzia egonda ere, zerbaitetan ahobatezko adostasuna egon bada hau izan da aniztasuna zeharkako gisa txertatzearen aldeko apustuaren beharra.

Ikus dezagun zer den zeharkakotasun horrek inplikatzeko duena:

1. Kontzeptuaren zabalera

Hasieran adierazten bagenuen ere, errepikatu beharra ikusten dugu: aniztasun sexuala aipatzen dugunean ez dugula adierazi nahi “gutxiengoak eta gutxiengoaren parte izatearen ondoriozko beharrak”. Aukeren baturari erreferentzia egiten diogu aniztasuna hitzaren zentzu honek baimentzen digulako ikusaraztea arazoa testuingurua gutxiengoaren beharretara moldatzen ez denean agertzen dela.

Azken batean, abiapuntu honetatik ez da ez gizarte desberdintasunen problematika ezkututzen, ezta esperientzien desberdintasuna baloreen jartzearen beharra alde batera uzten. Ondorioz, aniztasun sexualaren aldekatasuna biztanleria eta gazteria osoaren erantzukizun bilakatzen da.

2. Denbora osoan, espazio guztietan

Gogora ekar dezagun feminismoan eratu den betaurreko moreen metafora. Hauek gabe bizi gaitezke, baina gauzak oso desberdin ikusiko ditugu.

Berdin gertatzen da aniztasun sexualarekin. Hau zeharkako bilakatzea ezin aldera daiteke honekiko kontzientziazioa lantzeko saio edota tailer batzuk burutzearekin. Hau ez litzateke honen presentzia egunerokotasunean txertatzea. Inondik inora.

Garrantzitsua da Berdintasun eraginkorra erraztea eta eskubideen urratzeak ekiditzea sexualitateaz hitz egiten den aldi oro errealtate guztiak ikusgai eginez. Soilik horrela lan egin daiteke sentsibilizazio konkretutik haratago.



3.3.2. LGBTBI+ kolektiboa

1. Zergatik diogu “LGBTBI+”?

Egun erabiltzen diren siglak ere gero eta anitzagoak dira eta talde edota diskurtso bakoitzak aukeraketa konkretua egiten du. Siglarik ezagunenen artean ondokoak ditugu batzuk:

- LGTB edo LGTB+: sigla aitzindariak batzuetan “+” batekin aurkeztuak direnak.
- LGBTBI edo LGBTBI+: kolektibo intersexualaren ikusgaitasunaren aurrean eraikitako siglak.
- LGBTBIQ edo LGBTBIQ+: Queer mugimenduarekiko aldeketasuna adierazi nahi da.
- GOAI edo GOEA: mundu anglosaxoitik datozen siglak dira hauek eta are kolektibo ez normatibo gehiago bere barnean sailatzeko apustua egiten dute. Genero eta Orientazio Anitzak eta Intersexualak eta Genero, Orientazio eta Erromantze Anitzak esan nahi dute siglek, hurrenez-hurren.


Identitatea

Izaerak

Orientazioa

Genitalak

Normatiboak ez ziren identitate, orientazio, izaera eta genitalak beti baztertuak izan dira. Ez soilik ezjakintasunagatik, baita tabuagatik ere. Horrek eskubide gutxiago zituen gutxiengo oso bat sortu du. LGBTBI+ siglen barruan batu dezakegun gutxiengo bat. Egunero alternatiba gehiago mahaigaineratzen dira, eta are gehiago, horien gainean lan egiten da hauek balio eta aniztasunaren erakusle bezala ulertuta



Hainbeste aukera egonik, EGKren apustua izan da, Gaur8 lantaldean eraiki den diskurtsoari jarraiki, LGBTBI+ formula erabiltzea. Ulertzen dugulako pertsona intersexual gisa ulertzen ditugunen ikusgaitasuna ere garrantzizkoa dela. Bestalde, Plusa (“+”) gehitzea erabaki zen sigla bakoitzak ezkuta dezakeen aniztasuna azaleratzeko, T letraren kasuan gertatzen den bezala.

Dena dela, edozein delarik aukeraketa, garrantzitsua da azpimarratzea aniztasun honetan ere posible direla gutxieneko akordioak eta erronka komunak aurkitzea.

2. LGBTBI+ kolektiboaren egoera

Egun maila juridikoan hainbat aurrerapauso eman dira eta honek ondoriozko efektu ekidiezina izan du politika zein neurrietan. Hala ere, badago oraindik egitekoa aurretik. Izan ere, beharrezko informazioa helarazi dezakeen behatoki baten faltan aurkitzen da egun Euskadi.

Hala ere, bada jada honi aurre eginez buruturiko esfortzua, bai administrazioetatik baita elkartegintzatik. Honen harira, aipagarria da Bizigay Elkarteak 2016an argitaratu duen Eskubide Sexualei buruzko ikerketa Giza Eskubideen Ikuspegitik (“Análisis de los derechos sexuales desde los derechos humanos”). Bere gaurkotasan zein sakontasunagatik, egoeraren pista asko ematen dizkigun analisia dugu hau.

Gazteriari dagokionez, ikerketak azaleratu du nerabeek beraien eskubideak

defendatzeko eta "iraultzeko" beharrezkoak dituzten tresnak eta baliabideak oraindik ere ez dituztela eskuragarri. Ondorioz, "nerabeak" ez direla egun sexutuak diren subjektuak bezala ikuskatuak.

Bestalde, ikerketak mahaigaineratu du sexu-heziketa, aniztasun sexualari buruzko heziketa bezala uler dezakeguna, falta dela eta ez dela era integralean ematen. Honen ezean, sozializazio matxista gailenduz eta, ondorioz, sexistak eta LGBTI+ fobikoak diren jarreraren biziraupena bermatzen delarik.

Hortaz, ikerketa honen argitan, orokorrean Eskubide Sexualak ez dira beste Giza Eskubideen maila berean ulertzen. Ondorioz, hauekiko dagoen aldekotasun falta bereziki azpimarragarria suertatuko da gutxiengoei dagokion arloan, oraindik ere hauen ikusgaitasunaren eta Berdintasun osoaren aldeko lan dezente egiteke baitago gizarte mailan.

Ikerketa honetatik haratago, egun lor dezakegun datu bakarra da 2015 urtean orientazio edota identitateagatik 27 gorroto delitu eman zirela, Euskadin.

Gainera, hauek burutzen diren salaketa juridikoen isla dira soilik. Izan ere, 2015ean EGK-k burutu zuen Berdintasun Diagnostikoan islatu zen bezala, gazteriaren %89,4ak adierazi zuen LGBTI+ kolektiboak bazterkeria egoera bat bizi duela. Are gehiago, %70,6ak kolektiboaren aurkako diskriminazio motaren bat entzun edo ikusia zuen.

Ondorioz, ezin uka dezakegu oraindik ere jarrera LGBTI+ fobikoak daudela eta gazteriak ere bizi dituela honen ondorioak. Honen aurrean, ez da gure betebeharra gazteria soilik esku-hartzerako kolektibo gisa ikuskatzea, alegia, subjektu pasibo gisa ulertzea, baita gizarte eragile bezala ikuskatzea ere.

Izan ere, ez da soilik kontzientziazio eta sentsibilizazioa bultzatu behar, elkarrekikotasunean oinarritutako onarpenaren testuingurua eraikitzen lagundu behar da ere.

Horretarako, beharrezkoa da LGBTI+ kolektiboak bizi dituen eta hezkuntzarekin estuki harremanduta dauden diskriminaziorik ohikoenak ezagutzea:

Estereotipoak eta aurreiritziak: "ustek erdia ustel"

Aipatu dugun EGK Berdintasun Diagnostikoan gazte elkarriketatu askok adierazten zuten entzundako diskriminazio motak gehienetan aurreiritziak zirela. Gainera, elkarriketatuek ere adierazi dute egun oraindik ere estereotipo eta aurreiritzi LGBTI+ fobikoek badira utela.

Aurreiritzi zein estereotipoen jatorria sexismoa (edo cisheterosexismoa) da.

Ideologia honek defendatzen du bi identitate soilik daudela eta hauetako bakoitzari gorputz, portaera eta orientazio bat dagokiola. Gainera, bi identitate hauek



Ikerketak erakutsi du Eskubide sexualak ez direla "lehen mailako eskubide" bezala ulertuak.

[<http://bit.ly/2ks22Mk>]

hierarkizatzen ditu eta hierarkia bera zalantzan ezartzen duen eredu oro kritikagarri eta estigmatizatu bilakatzen du.

Era honetara, beraiengandik espero zen “emakume” zein “gizon” papera betetzen ez zuten pertsona guztiek maila desberdinetako diskriminazioak jasan dituzte, baita legalak ere historian zehar aztertzen baldin badugu.

Jarraian ezartzen ditugu bereizketa hauen adibide batzuk:

- Homosexualitatea...
 - ... 1973arte Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA) “desbiderapen sexual”tzat jo zuen.
 - ...1990 arte Munduko Osasun Erakundearen Nazioarteko Gaixotasunen Sailkapenean egon zen.
- Beraien gorputza hormona zein kirurgia bitartez eraldatu nahi duten Trans* pertsonak...
 - ... legez derrigortuta daude “oniritzi medikua” lortzera.
 - ...oraindik ere Amerikako Psikiatria Elkartearen (APA) Buru Asalduren Diagnosi eta Estatistika Eskuliburuan agertzen dira kategorio kliniko gisa.
- Pertsona intersexualen gorputzak...
 - ... “patologikotzat” hartuak dira oraindik ere.

Isa Vazquez
ilustratzaileak
bineta honen
bitartez identitatea
errespetatzearen eta ez
esleitzearen garrantziaz
gogoeta egiten du.
[Trans*sexualidades:
Acompañamiento,
factores de salud y
recursos educativos
(Ediciones Bellaterra)
liburuko ilustrazioa -
<http://bit.ly/2ks48yb>]



LGTBI+ kolektiboari buruzko aurreiritzi batzuk bizirik dira oraindik



AURREIRITZIA

ERREALITATEA

GIB/HIESa homosexualen gaixotasuna da.

HIB/HIESa praktiken arabera errazago transmititzen den infekzioa da. Orientazioak ez du zerikusirik, baizik eta egiten denak eta honen transmisioa ekiditeko neurriak hartzen ditugun ala ez.

Homosexual eta Transexualak gaixotasun mental bat dute.

Desira orientazioak eta norbere burua eraikitzeak erak anitzak dira. Egun homosexualitatea kendu den bezala nazioarte mailako gidetatik, transexualitatea gidetatik ateratzeko apustua dago baita testuinguru medikuan ere.

Umeek edo gazteek ezin jakin dezakete.

Gorpuzkera gurekin bat datorren gauza bat da, hortaz, intersexualitate egoeran jaio egiten gara. Identitatea uste baino goizago eraikitzen da, 2-3 urte inguruan. Orientazioa, desirarekin estuki lotua egonik, nerabezeroan jada adierazi daiteke.

Homosexual zein bisexualak biziotsu hutsak dira.

Norberaren desira bizitzeko erak soilik norbanakoak jar ditzake zalantzan eta bakoitzari dagokio bere bizimodua eraikitzea. Orientazioak ez gaitu derrigortzen erotika ulertzeko era bat edo beste bat izatera.

Bisexualak ez dira existitzen, zer nahi duten ez dakiten pertsonak dira.

Pertsona bisexualek orientazio propioa dute.

Guraso homosexualak seme-alaba homosexualak izatea eragin dezakete.

Homosexualitateak ez badu ezer negatiborik, ezin dezakegu horrelako argudiorik legitimatu ere ez. Gainera, egungo pertsona homosexual gehienbat familia heterosexualetan hezi izan dira. Hortaz, ez dago inongo logikarik.

Emakume transexual bat ez da inoiz benetako emakumea izango.

Emakume zein gizon izanik ez dago "gutxiago" edo "gehiago" izan daitekeen pertsonarik. Hau ez baita gur ezaugarrien baturaren ondoriozkoa, bere horretan eraikitzen den adreilua baizik.

Izan ere, egiazko informazio eta jakintza ezean, lekuan-lekuko mitoak eta usteak gailentzen dira.

Honek ez du eragiten soilik gizarte mailako onarpenean, baita gutxiengoan auto-onarpenean ere. Era honetara, beraien bizitza ibilbidea ere desinformazioz beterikoa da.

Gizarte mailako zailtasunak: eskubide murrizketa

Legeetan arreta ezarrita, badaude oraindik ere gutxiengoak diskriminatzen dituzten hainbat neurri. Orokorrenetik hasita, dokumentazio ofizialean sexua islatu behar izateak jada estropezu egiten du pertsona intersexualen egoerarekin; hauek jaiotzean identifikatzeko beharra baitugu bi kategoria klasikoetako batean. Hala nola, neurri hau bere burua I.E.Betan kokatzen duen edozeinentzat diskriminatzailea da ere, soilik bi sexu aurreikusten baitira posible gisa.

Aipatu dira jada dokumentazio ofizialean aldaketa nahi duten trans* pertsonen oztopo legalak. Oztopo hauek trans* bizipena baldintzatzen dute eredu onargarri bakar batetara murriztuz patologizatzen eta zailago bilakatzen duten bitartean.

Dokumentazioan aldaketa lortzeko, beraien identitatea "frogatu" behar dute.



Umeei zuzendutako
"Irrien Lagunak"
aldizkariak 2016ko
martxoko alean
transexualitate egoeran
era ireki batean bizi
den neska bat agertzen
deneko lehen komikia
argitaratu zuen. Irudi
positibo eta barne-
hartzailea erakutsiz.
[<http://bit.ly/2jJm113>]

Trantsizio prozesua dokumentazio ofizialaren aldaketa lortzeko

Pertsonen Sexuaren Aipamena Erregistro Zibilean Zuzentzea Arautzen duen martxoaren 3/2007 Legeari esker prozesuaren sinplifikazioa lortu zen.


Hala ere, egun prozesua luzea da eta garestia da ekonomikoki eta baita maila pertsonalean ere. Jarraian prozesua azaltzen da gaingiroki:

1. **Abiapuntua:** dokumentazio ofiziala aldatzeko desira.
2. **Prozesuaren derrigortasunak:** Lehenik eta behin, “genero-disforia” diagnosia lortu behar da. Horretarako, Genero-Nortasunaren Nahasteetako Unitateetara (GNNU) joan behar da. Euskadin soilik Bilboko Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleak du GNNU bat.
3. **Are gehiago:** Aipatutako diagnosiaren ostean, hormonak hartzearen prozesua hasten da. Honek bi urte iraun behar ditu erregistro aldaketa eskaera egin aurretik. Bi urtetako gutxieneko hau ezarri zen gorputzek antzutasuna gara zezaten.

Mugimendu eta eragile askok, hala nola, profesionalak prozesu guzti hau kritikatzeko dute. Oraindik ere eskatzen eta laguntza edo akonpainamendu jarreran oinarritzen ez den prozesu bat da. **Trans* pertsona mota bat bultzatzen duen eredu bat eta ez duena erabakiak era aske batean hartzea errazten.**

Gainera, gutxieneko 2 urtetako hormonak hartzeko denboraldiak ez du kontuan hartzen ondoko egoera:

1. **Abiapuntu-egoera:** dokumentazio ofizialean erregistro aldaketa lortu ahal izateko pertsona bat bi urtez hormonak hartu behar ditu.
2. **Arazoa:** Ihormonak hartzea aldaketak sortzen ditu gorputzean erritmo azkarrago batean. Era honetara, oraindik urte eta erdi zain egon behar diren pertsonen beraien momentuko irudiaren isla ez den dokumentazio bat izaten bukatzen dute.
3. **Nahiz eta Euskadin aurrerago aipatuko diren neurri osagarriak dauden, biztanleriak duen trans* pertsonetarako ezagutza faltak baztertze arrisku eta eskubide urratze egoera bat sor dezake, pertsona trans* gazteak ere barne-hartzen dituen.**



Gogoratu!

Egun Euskadin badago hauek ekidite aldera planteatu den alternatiba bat. Honek jatorria du 14/2012 Legean, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa dena. Lege honen bitartez Eusko Jaurlaritzak behin-behineko dokumentazioaren atea ireki du. Era honetara, behin prozedimendu medikua hartuta posible da dokumentazio honen eskaera burutzea eta, ondorioz, edonon sentitzen den sexuaren arabera tratatua izatea.

Ordea, esaten genuen bezala, oraindik ere nazioarte mailan “gaixotasun” estatusa du diagnosi liburuetan agertzeagatik. Ondorioz, trantsizioa kanpo ebaluaketara baldintzatzen da.

Azkenik, eta orientazio aniztasunari jarraiki, nahiz eta 13/2005 Legea estatu mailan aurrerapausoa izan, jakin badakigu berdintasun eraginkorraren ikuspegitik familia proiektua aurrera eramatea zaila dela eta kolektiboa oraindik jasan ditzakeen indarkeria mota desberdinek badirautela. Ondorioz, aniztasunaren ikusgarritasun falta honek biztanleria osoaren arteko eskubide berdintasuna guztiz ziurtatua ez dagoela esatera garamatza.

Gatazkak hezkuntza testuinguruan

Atal honekin aurrera egin aurretik, gogoraraziko dugu egoera nahiz gatazka konketuak kudeatzeko jarraibideak aurrerago eskainiko ditugula.

Kontuan izanda jada azpimarratu dugula zeharka burutu behar den eraldaketa prozesu sakona, oraingoan ongizate pertsonala zuzenean mehatxatzen duten gatazkengan ezarri nahi dugu arreta, hain zuzen ere, bullying LGTBI+¹obikoaren gainean. Bereziki gazterian eman daitekeen indarkeria mota bat baitugu hau.

Behatoki konketu baten ezean, ez dago erarik profil konketu honetako bullying kasuen jarraipena burutzeko, ez baitago datu-ituririk. Hala ere, kolektiboaren biztanleria gaztea burura datorkigunean, lehenengo pentsamenduetako bat izan ohi da berdinen artean eman daitekeen gatazka honena.

Nola ulertu bullying-a

Izan ere, bullying-a ulertzeko lehen klabea da ikustea larrialdi kasu baten aurrean gaudela. Alegia, arazoa bera baino, **sintoma** dugula hau; gizarte LGBTI+fobiko baten sintoma.

Ez dugu alarmarik piztu nahi, baina bai gogoeta. Testuinguru batean non jada kontzientziazioa lortua dagoen guztiz, berdinen taldeak berak kudeatzen ditu lekuz kanpotzat jotzen dituen joerak eta gatazka ekiditen du. Ordea, oraindik ere aniztasun sexuala ez baldin bada dagokion begiradatik ikusten eta baloratzen, zilegi bilakatzen da trataera hau.

Ondorioz, eta bestelako gaixotasunekin egiten dugun bezala, **ezin dezakegu sintoma gaixotasuna bailitzan epaitu eta tratatu. Desproporzionatua eta ilogikoa izango litzateke, gainera, gaixotasunean arreta jartzea ahaztuz gero, gure azken helburuarentzat ez litzateke lagungarria.**

Era berean, **sintomak bere zentzua baduela** ulertu behar dugu. Nolabait, esatearren, **bere funtzioa baduela**. Lehena da, metaforari jarraiki, **gu gaixotasunaz ohartaraztea**.

Bigarrenik, **gaixotasunarekiko duen funtzioaz hitz egitea beharrezkoa da**. Kolektibo oso bat oraindik ere era desberdinean tratatzen duen gizarte batean, **norbere burua konfirmatzeko, onartua sentitzeko eta oniritzia lortzeko mekanismo ezinhobea da kolektibo honekiko jarrera ezkorra.**

Alegia, ulertzen lehena izan behar du “nonbaiten ikasi dela” jarrera hori eta, ondorioz, “nonbaiten erabilgarria dela pertsona horren helburuentzat”. Ezin dezakegu sintoma honen gainean ekin hori kontuan izan gabe, hartara, ahaztuko genuke eskaintzen dugun aukera berriak ere onura eskaini behar duela eta, ondorioz, erakargarria suertatu behar dela.

Jarrera honetatik, bilatuko duguna beti da **“irabazi-irabazi”** irtenbide bat. Hau da, guztien onurarako den irtenbide bat eta ez soilik irtenbide diziplinarioa.

Izan ere, gatazka orok eskalada bat duela kontuan izan beharra dago. Hau da,, orain arte prozesu bat egon dela eta guk testuinguru horretan paper bat izan dugula hau bideratzen lagundu duena: ez dizkiogu arreta ezarri seinale desberdinei, jarrerak ez ditugu begi kritikoaz aztertu... Alegia, gure orain arteko jarrera ere gatazkaren eskaladarako baliabide izan dela. Edozein izan delarik, hortaz, ez da gatazkaren ebazpenerako jarrera aproposa eta soilik handiagotzeko hegoak ematen dizkio.

Hau esanda, hona hemen bullying egoera baten aurrean aurkitzen gaudela ohartarazten gaituzten pista batzuk:

- Talde osoarekin harremantzen ez den norbait dago. Banandua egon ohi da eta talde egoerek nolabaiteko deserosotasuna erakartzen dutela nabari da.

- Pertsona baten jarreraren aldaketak nabaritzen dira. Itxiagoa bilakatzen da, isilagoa... Batzuetan, jarrera aldaketa hau bereziki taldekideekiko ematen da eta ez hainbeste taldearen dinamizatzailerikiko. Izan ere, batzuetan dinamizatzailerikiko edota taldearen helburu orokorreko lotura gehiago erakusten da (inoiz ez du arreta galtzen, beti esandako guztia gogoan du...)
- Negatiboak ez diren edota hain larriak ez diren egoeretan (gatazkarekin lotura zuzenik ez dutenak) tristura eta haserre manifestazio ageri eta “desproporzionatuak” agertzen dira.
- Talde kohesioak orokorrean huts egiten du eta adostu gabeko hierarkiak detektatzen dira. Taldeari zaila egiten zaio talde modura aurrera egitea bai beraien helburuetan edota dinamizatzailerik proposaturikoetan.

Gatazka interpertsonal orok azalarazten digu badaudela gutxienez bi parte kontrajarri. Kasu hauetan, gainera, partaide direnek kontrako bi kokaleku dituzte eta kokaleku hauek gero eta muturrekoagoak bilaka daitezke gatazkak aurrera egin ahala.

Bi parteetako bat “Up” posizioan, hau da “Goi” posizioan egon ohi da, bestea “Down” edo “Behe” posizioan dagoen bitartean. Hauek definituak, gatazkak aurrera egin ahala, egoerak larriagotzeko arriskua du.

Beti ez ditugu indarkeria fisikoa barne hartzen dituzten kasuak izango. Ordea, indarkeria fisikorik ez dagoenean ere, kasu mingarriak izan daitezke maila pertsonal eta kolektiboan.

Gatazkak polarizazio eta igoera logika batean sar daitezke honetan parte hartzen dutenek egoerari bira emateko baliabiderik ez badute. Hau dela eta, bereziki egoera hauek eteteko behar duena da **logika haustea**. Beste era batetara esanda, **Goi** eta **Behe** posizioak eraldatu behar dira, baina ez irauliz, baizik eta logika bera hautsiz.

Hortaz, ezin dezakegu sortu harreman logika berri bat non aurretiaz erasotua edo biktima izan dena boteredun pertsona berria izango den, baizik eta harremanak izateko eta elkarrekin komunikatzeko testuinguru berri bat eraiki behar dugu. Gatazkak ulertzeko **ikuspegi sistemikoa** dugu hau. Honetan sarritan erabiltzen den metafora izan ohi da gurpilean makila sartzearena. Hau da gure helburua: **dagoen dinamika apurtzea eta berri bat eraikitzea**.

3.4. Aniztasun sexualaren erronkak hezkuntzan

Diskriminazio mota desberdinak azalduta, ez dugu alde teorikoa itxi nahi mezu positiborik gabe. Izan ere, aurretiaz azaldu ditugun eremu gatazkatsuak badira ere eraldaketa eta hobekuntzarako aukera argiak. Hau dela eta, detektatutako zailtasun eta diskriminazio hauek abiapuntu hartuta eta kontuan izanda eragile desberdinek planteatutako helburu idealak, jarraian hezkuntza testuinguruei begira aniztasun sexualak dituen 10 erronkak aurkeztuko ditugu.

Aniztasun sexualak hezkuntza- testuinguruetan dituen 10 erronka

1. *“Aniztasun sexuala” kontzeptua bere sakontasunean ulertu eta barneratzea eta ez “gutxiengo”en eufemismo bezala.*
2. *Identitate, izaera zein orientazio orok ikusgarritasun maila berdina izatea.*
3. *Identitate, izaera zein orientazioa ez izatea inongo diskriminazio zein zailtasunerako aitzakia.*
4. *Gutxiengo gisa ulertzen diren identitate, izaera eta orientazioen erreferente erreal zein fikziozkoak ezagutaraztea eta hauei buruzko gogoeta eta omenaldi ekitaldiak bultzatzea.*
5. *Gaia zeharkakotasunez txertatzea eta aniztasuna momentu oro kontuan izatea, aurretiaz beharrezkoak suerta daitezkeen egokitzapenak kontuan izatea.*
6. *Sexu-heziketari, bereziki aniztasunaren ikuspegia txertatua duenari, bere denbora eta espazioak ematea.*
7. *Gutxiengoen parte diren nerabe zein gazteekiko onarpen eta laguntza jarrera bat helaraztea.*
8. *LGTBI+fobikoak diren mezuak, gatazkak... ekidin eta aktiboki eraldatzeko ekin.*
9. *Aniztasun sexualaz gehiago jakiteko tresna zein baliabide desberdinak ezagutzera ematea.*
10. *Gutxiengotzat jotzen den nerabe zein gazteei bereziki beraien ibilbiderako lagungarriak izango diren tresna zein baliabide desberdinak luzatu eta laguntza eskatzera animatu.*

4. Erantzunak eraikiz



4.1. Eguneroko lana

Atal honetan aztertuko ditugu bai zeharka era konstantean izan behar den jarrera, hala nola, gatazkak heziketa testuinguruan kudeatzeko eredu bat.

4.1.1. Jarreraren dago gakoa

Aniztasun sexuala etengabe ikusgai bilakatzea eta errealitate modura ezagutzera ematea ezinbestekoa da.

Helburu honetan lehen egitekoa da jarrera egokia garatzea. Jarrera hau bai galdera zein zalantza edo arazo puntualen aurrean nahiz egunerokotasunean garatu beharreko jarrera bat da. LANTZE edo HAZTE jarrera dugu hau.

LANTZE JARRERA GARATZEKO SEI ABIAPUNTUAK

1. Debeku eta permisibitate desberdinduz

Hezitzailearen papera informazioa helarazi eta aukera aniztasuna ikusgai bilakatzea da. Jarrera honen helburua da nerabe zein gazteei baliagarria zaien edozein informazio helaraztea.

Argiago gera dadin ikus dezaken diskurtso bakoitzak izango lukeen diskurtsoaren adibide batzuk

Debeku diskurtsoa	Permisibitate diskurtsoa	LANTZE DISKURTSOA
<i>Homosexualitatea ezin daiteke aukera bat izan.</i>	<i>Guztiok esperimentatu beharra daukagu orientazio desberdinekin.</i>	<i>Norbanako bakoitza bere orientazioaz jabetuz joango da, posible izanik hau aurkituz joan ahala eraldaketak bizitzea bere desira ulerkeran.</i>
<i>Egun ekainak 28a ospatzen jarraitzeak ez du zentzurik.</i>	<i>Egunero LGTBI+ kolektiboak bere ikusgaitasuna landu behar du.</i>	<i>Errealitate desberdinak daude identitate, izaera eta orientazioari dagokionez. Aniztasuna ikusgai egiteko ereduaren gaineko informazioa ezinbestekoa da.</i>
<i>Transexualitatea gaixotasun bat da.</i>	<i>Txikitatik beraien izaera esplora dezaten derrigortu beharra dago.</i>	<i>Adintxikikoen beharrak entzun eta hauei moldatzen den akonpainamendua egitean dago klabea. Horrela emango baita identitatearen garapen asebetegarria.</i>

Hitz gutxitan, **hazte jarrerak** errealtatean aurki daitezkeen aukera guztiak kontuan izaten ditu eta ikusgai bilakatzen ditu, egunerokotasunaren parte gisa aurkezten ditu. Ordea, ez du aukera konkretu baten aldeko apustua egiten, hori bakoitzaren erantzukizuna eta beharra dela ulertzen baitu.

2. Akonpainamendua: laguntzaile bai, gidari ez


Aurrekotik ondorioztatzen da hezitzaile bat sexualitatearen arloan beti akonpainamenduaren logikatik abiatu behar dela. Hau da, ez dela nerabe zein gaztearen “aurretik” ezarri behar, baizik eta “honen ondoan” berak aukeratzen duen bidea eraikitzen laguntzeko.

Gure beldurretatik abiatzen garenean ez da arraroa gidari papera hartzea eta norbanakoek duten agentzia gaitasuna ahaztea. Horregatik, garrantzitsua da beldurrez kontzientzia hartzea baina hauek alde batera utzita eta norbanakoaren aukeratze askatasuna abiapuntu hartuta ekitea. Izan ere, jarrera honek baimenduko du epe motz eta ertainerako ahalduztze prozesu indibiduala.

3. “Zergatik jaso dut galdera hau?”

Edozein delarik adierazpena, baita hau “politikoki zuzena” den horretatik haratago dagoenean ere, beti galdetu behar diogu gure buruari adierazpen edo galdera hori egiteko zergatiaz, alegia, adierazpenaren funtzioaz.

Horrela, zergatian pentsatuz, ez diogu galdera hutsari erantzuna ematen, baizik eta galdera eta adierazpena bideratu duen estimuluari ere lekua egiten diogu eta sakonagoa den gogoeta bideratzen dugu.



Hona hemen adierazpenen aurrean eman daitezkeen erantzunen arteko desberdintasunaren adibide batzuk (gorriz adierazten ditugu zergatian pentsatzen ez dutenak eta berdez pentsatzen dutenak).

Erantzuna behar duten esaldiak	Pentsa daitekeena	Pentsatu dugunaren ondorioz esaten duguna
20 urtetako gazte batek adierazten du: "Ez dut ulertzen maritxuek zergatik izan behar duten ezkontzeko eskubidea"	ERA EZ ERAIKITZAILEAK	
	- Bere homofobia erakusteko lotsarik ez duen norbait da. "Maritxua" hitza negatiboa da, debekatu egin behar da horrela hitz egitea. - Legea dago eta legeak baimentzen du ezkontzea.	"Nola okurritzen zaizu horrelakorik esatea? Ez da <maritxu> esaten, homosexual baizik. Gainera, legeak baimentzen du". Ondorioak: Zigortu egiten da jarrera homofoboaren jatorrian pentsatu gabe. "Homosexual" hitza irain bilakatzeko arriskua dago.
	ERA ERAIKITZAILEAK	
	- Bere homofobiak begi bistan uzten du homosexualitateari eta sexualitateari berari buruzko okerreko ideia asko dituela. "Maritxua" hitzaren esanahia jakintzat ematen du, esanahi partekatutzat du. - Ezkontzaren eta ezkontuta egotearen arrazoiak ideia okerrak atzean egotea posible.	"Ez nago seguru <maritxu> esaten duzunean zertaz ari ote zaren". - Berak definitu ostean landu beharrekoa: <Maritxu> hitzak feminitatea zigortzen du, beste testuinguruetan oso gustuko eta baloratua dena. - Historian zehar ezkontza baimentzen zuten arrazoi desberdinak zeuden eta egun, bereziki, maitasuna baloratzen da horretarako motore bezala. Hau oso modernoa da, bai bikote heterosexualen zein homosexualen artean.
16 urtetako nerabe batek galdetzen du: "Neskekin erosoago sentitzen naiz mutilekin baino. Nesken denbora pasak ditut atsegin... normala al da hau?"	ERA EZ ERAIKITZAILEAK	
	- Ez daude ez neska ez mutilen gauzak direnak. - Honek agian arazoak sorrarazi dizkio beste mutilekin. - Nola pentsa dezake ez dela normala?	"Ez daude neska edo mutilenak diren gauzak, baina ulertzen dut esan nahi duzuna. Guztiz normala da". Zalantza berriak pizten dituen mezu kontraesankorra da hau: ulertzen da, baina errealitate bat ukatzen da, normala da, bainaberak ez du bere antzeko inor ezagutzen.
	ERA ERAIKITZAILEAK	
	- Talde honetan oso desberdinak daude gustuak eta aisirako ekintzak. Kontuan izan beharrekoa da hau. - Bere feminitateak nolabait deseroso edo nahastuta uzten du. - Posible da taldean bertan estereotipo eta okerreko ideia anitz egoteak.	Azaldu beharreko ideiak: - Feminitatea eta maskulinitatea guztiongan dagoen zerbait gisa. - Identitatea, izaera eta orientazioa hiru gauza desberdin gisa eta elkar-eragin erabakigarriak ez dutenak. Gainera, jatorriko taldean ere ideiak lantzea egokia litzateke.

4. Egunerokotasunean txertatuz:

Egunerokotasunean aniztasun sexuala uste baino kudeatzeko errazagoa da. Honen gomendioak egituratzeko identitate, izaera eta orientazioen beharren arabera hitz egingo dugu.

	Zer suposatzen du arlo honetan aniztasuna errespetatzea? GOGORATU!	Zer egin beharko litzateke hemendik ondorioztatuta?	OHARRA!
IDENTITATEARI ARRETA	Norbanako bakoitzari erraztu behar zaio bere identitatea adierazi aha izatea (eta ez automatikoki esleitutakoa ontzat ematea).	ESLEITUTAKOA ETA NORBERAK ADIERAZITAKOA BAT EZ DATOZENEAN: TESTUINGURUA MOLDATU: • Beti norbanakoaren identitate eta izen egokia erabili informal naiz formalki. • Dinamiketan identitatea txertatzeko beharra badago, egoeraren ebaluaketa egin aurretiaz. • Espazio pribatuen kudeaketarako norbanakoaren nahia edo preferentzia kontuan izan*	KONTUAN IZAN BETI ONDOKO PUNTUEN OREKA BILATU BEHARKO DELA: - ESKUBIDE ETA ASKATASUN BERDINTASUNA. - ANONIMOTASUN ETA INTIMITATE ESKUBIDEA (marrazkia vs, elkarreragina).
IZAERARI ARRETA	ANIZTASUNA IKUSGARRI BILAKATU (inor bere aspektu pertsonalak partekatzeri behartu gabe, adibideen bitartez).	Gorpuzkera aniztasunak espazio pribatuei buruzko aurreko puntua kontuan izatera garamatza*.	
ORIENTAZIOARI ARRETA		Erraztu norbanakoen garapena, aliatu bat izan eta erreferente positiboak erabili.	
BESTE DOKUMENTU INTERESGARRIAK	Honi dagokionez bereziki interesgarria izan daiteke Eusko Jaurlaritzak 2016an argitaratutako "Transexualitateari arretea integrala eskaintzeko Gida": http://bit.ly/2hjhqbn		



Gogoraraztea arlo honetan badagoela ere Eusko Jaurlaritzak 2016an argitaratutako "Transexualitate-egoeran daudenei arretea integrala emateko Gida".



5. Ezer jakintzat ez ematea

Gizarte mailan ezagunak diren esanahi zein hitzak etengabe zalantzan jartzea, hauetaz eztabaidatzea eta beraien beharretara egokitzen diren errealitateak eraikitzea.

Gainera, batzuetan esanahiak partekatuak direla uste dugu eta banako bakoitzak bere errealitatetik eta bere “normaltasun” kontzeptutik hitz egiten du, erakar ditzakeen gaizki ulertu eta ondorioekin.

Hau dela eta, ahalik eta sinpleen eta argien hitz egitea ezinbestekoa da, bakoitzak dioena ulertu dela ziurtatzea eta ezer jakintzat ez ematea.

Heziketa eremu honetan .ezinezkoa da galderei “bai ala ez” erantzunak ematea. Bereziki eztabaida sortzea eta adostasunean oinarritutako definizio berriak sortzea dugulako helburu. Talde horrentzat eta bere beharrentzat egokituak daudenak eta aniztasuna errealitate ukaezintzat jotzen dutenak. Hau dela eta, zalantzan ezartzea eta galderak bueltan itzultzea ezinbesteko bat bilakatzen da heziketa egiterakoan.

6. Informazio gehiago ez dagoenean

Nahiz eta informazio asko izan, nahiz eta formakuntza izan, egokia da ere eragile bakoitzaren papera, malgutasunez, muga batzuen barruan ulertzea.

Muga hori informazio gehiago beharrezkoa delako ematen denean , posible da lehen bilaketa hau ere elkarrekin burutzea eta partekatutako prozesu bat izatea. Hartara, bai laguntza eskatutako nerabe edo gazteak bai hezitzaile papera duenak berak ikasketa prozesu bat burutuko baitute. Era honetara, gainera, laguntzarako prestutasuna erakutsi eta ahalduz laguntzea lortzen da era berean.



Egoki erantzun al dudan jakiteko test-a:

Abiapuntu hauek ikusita eta berriki erantzuna eman behar izan baduzu aniztasun sexualari lotutako gai baten harira, jarraian dagoen test-a egin dezakezu zure burua ebaluatzeko. Izan guztiz zintzoa, ebaluaketa guztiz pertsonala baita!

		Erabat	la denbora guztian	Nahiko	Gutxi	Oso gutxi
Eman dudan ulermenerako testuinguruari buruz	Erantzun irekiak luzatu al ditut					
	Kontzeptu egokiak erabili al ditut					
	Hizkuntza egokitu al dut hartzailearen profiltera?					
	Garrantzizkoa denari arreta ezarri diot?					
Aniztasunaren ideia indartzeaz	Aniztasuna ageriko eta baliozkoa egin al dut?					
	Ez dut ezer jakintzat eman?					
	Banakoaren beharrei arreta ezarri al diet?					
	Idea berriak eraiki al ditut?					
Autonomia sustatzeari buruz	Nork hartu du azken erabakia?					
Galdera irekiak						
Zeintzuk izan dira nire indarguneak? Noiz sentitu naiz eroso?						
Zailtasunik aurkitu al dut? Zerk urduritu nau gehiago?						
Abiapuntuak kontuan izanda, zailtasun zein urduritasunak etorkizunean ekiditeko zein estrategia garatu dezaket?						

4.1.2. Gatazkei aurre egiteko eredua

Jarraian bullying kasu bat kudeatzeko eredu bat luzatuko dugu. Baina, hasi aurretik, kontuan izan behar dugu eredua bitartekaritzaren ikuspegian oinarritua dagoela. Hau da, ohikoagoak izan ohi diren neurri diziplinarioen eskematik at dagoen eskuhartze eredu eta jarrera bat eskatzen dutela.

Ondorioz, kontuan izan behar da jarraian eskaintzen dena biktimaren ongizatea arrisku larrian ezartzen ez duten kasuetan erabiltzeko prozesu bat dela eta, aldi berean, ikuspegiarekiko konpromiso bat erakartzen duela. Hortaz, hezitzaile eta gainbegirale talde bakoitzean baloratu beharko dela eredua jarraitzeko gaitasuna.



1. Kasua detektatu

Bullying kasuak era desberdinetan detektatu ohi dira. Ez da arraroa biktima ez den persona batek lehenengo salaketa bat egitea edota egoeraren berri ematea, hezitzaileek ez baitira beti indarkeria egoeren testigu.

Gauzak horrela, salatzailea nor den kontuan izan beharko da kasuaren ebaluaketaren oinarri izango den informazioa jasotzeko lehen elkarriketa. Ikus dezagun desberdintasuna jarraian:

Kasua salatzen duena ez denean biktima	Kasua salatzen duena biktima denean
• Lortu behar ditugun datu minimoak: - Nork salatzen duen eta nork bizi duen - Larritasun maila - Indarkeria ematen direneko egoerei buruko informazioa: non, noiz - Biktimak bizi dituen ondorioak - Alde erasotzaileari buruzko datuak - Pertsona honek alde erasotzailea zigortu behar dela uste al du?	Lortu beharreko datu minimoez gain garrantzizkoa da: - Biktimaren sufrimendua aintzat hartzea - Egoera eteteko apustu trinkoa adieraztea - Konfidentzialtasuna ziurtatu - Egoeraren eraldaketaren balorazioa: indarkeria motak, frekuentzia... aldatu al da? - Miatzea ea: Norbaitek ba al dakien eta zerbait egin al den geldiarazteko - Guztion artean kudeatzeko apustuaz hitz egin - Beti informatua egongo dela emango diren pausuez eta bere oniritzia eskatuko dela - "Ikusle kolaboratzaileak" detektatu eta hauekin egingo den lanaz hitz egin. *Ikusle kolaboratzaileak dira orain arte ekintza konkreturik agian burutu ez dituzten biktimaren berdinen taldekoak baina inplikazioa erakutsi dezaketenak arrazoi desberdinengatik.
• Pertsona honi helaraziko zaio: - Biktima babestea dela garrantzizkoena eta hezitzaileek plan bat eraikiko dutela. - Beraien kabuz ez ekiteko eskatu, honek gatazkaren igoera erakar baitezake.	
• Helburu nagusia izango da: - Gatazka igoeran sartzea ekidin. - Liskarrak eta konfrontazioak ekiditea, hauek kudeaketa baketsua oztopatzen baitute	

2. Kasuaren balorazioa egin

Jaso dugun informazioaren arabera hautatu beharko da ea diziplinan oinarritutako neurriak beharrezkoak diren biktimaren ongizatea arrisku larrian aurkitzeagatik ala bitartekaritzan oinarritutako ereduarekin aurrera egingo ote dugun.

Kolaborazio aukerak baloratu

Kolaborazio aukerak baloratzeko momentuan argi jakin behar da jada gatazkak ez duela igoeran sartzeko arriskurik. Irtenbide baketsu bat bilatzeko giroa badagoela ziurtatua dago.

Kolaborazio aukerak baloratzeko hiru taldeengan arreta ezarri behar dugu:

Hezitzaileak

Hezitzaile talde guztia egoera kudeatzen ari denaren ikuspegi beretik ulertzen dutela ziurtatu behar da. Alegia, kasuaren balorazio komuna burutua egon behar du eta ezin daitezke mezu kontraesankorrak bidali ezta koordinaziorik gabe ekin.

Ikusle kolaboratzaileak

Ikuslekolaboratzaileei laguntza eskatzen zaie. Anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatu ostean, beraien laguntzaren garrantzia azpimarratuko zaie, adieraziz taldearen artean aukeratuak izan direla beraien gaitasun desberdinengatik (enpatia, konponbideak bilatzeko joera...).

Hau argituta, egoerak sorrarazten duen kezka transmitituko da, momentu honetan erasotzen ari diren personek benetan erasoan bitartez besteekin harremantzeko joera har baitezakete. Hortaz, adieraziko zaie irtenbidea ez dela soilik biktimarentzat, baizik eta erasotzaileentzat ere.

Bukatzeko, erasotzaileak nortzuk diren argitzea eskatzen zaie, adieraziz gauzak ikusi ditugula baina partaide diren guztien erreferentzia beharrezkoa dugula. Bestalde, azken galdera bat luzatzen zaie: “ba al dakizue, gatazkan sartu gabe, zer egin dezakezuen biktima erosoago egon dadin?”

Azken galdera honen helburua da biktimak berak erabili izan ezin dituen baliabideak ikusleengan piztea eta hauen laguntzarako motibazioa bultzatzea. Era honetara, ideien zaparrada bat egingo da, beraien ideia egokiak txalotuz eta hauek aurrera eramatera bultzatuz.

Erasotzaileak

Erasotzaileengan damua da detektatu eta landu beharrekoa, honetatik abiatu ahal izango baikara enpatia eta eraldaketa lantzerako. Damua agertzeko lagungarriak izan daitezke ondoko pautak:

PAUTA	NOLA EZ	NOLA EGIN
<i>Ez errundundu guztiz diskurtso mailan</i>	<i>“Badakigu hau egiten ari zarela”</i>	<i>“Arazo bat kudeatu nahi dugu eta zu bertan inplikaturik dagoen pertsonatarik bat zara”</i>
<i>Eraikuntza eta minaren erreparazioa ezarri helburu gisa</i>	<i>“Zigorra merezi duzu, baina barkamena eskatuz gero...”</i>	<i>“Hau konpondu nahi dugu inor kaltetu gabe, baina horretarako zure laguntza ere behar dugu, bai?”</i>
<i>Erresistentziak aintzat hartu</i>	<i>“Gezurra esaten ari zara”</i>	<i>“Zure zintzotasuna eskatzen gatoz, horrela posible baita zuk kolaboratzea. Nola da posible talde guztiak jakitea nortaz ari garen eta zuk ez?”</i>
<i>Beraien heldutasuna azpimarratu</i>	<i>“Ez baduzu ezer egiten gurasoei esan beharko diegu”</i>	<i>“Badakizu honen balorazioa egiten dela eta gustatuko litzaiguke islatu ahal izatea arazoa konpontzeko prestutasun eta erantzukizun osoa duzula”</i>



*Erasotzailea bat baino gehiago denean, elkar-babestea ekiditeko eta mehatxu moduan pertzibituak ez izateko, **BANAKA** elkarriketatuak izango dira, beti ere ekidinez elkarriketa baten eta bestearen artean erasotzaileek elkarrekin kontaktua izatea.*

3. Bitartekaritza

Aurretiaz aipatutako pertsona guztien inplikazio positiboa lortu bada, bitartekaritza diseinatzea dagokigu orain. Bitartekaritza posible izango da jada kooperazioa eta konpromisoa errealitate bilakatu baldin badira. Erasotzaileek minaren konponketa burutzeko nahia eta damua adierazita izango dute momentu honetarako.

Bitartekaritza saioen helburua izango da “guztien arteko historia” eraikitzea. Honetarako, bai ikusle kolaboratzaileak, bai erasotzaileak zein biktima elkartuko dira. Saio hauen bitartez biktimarekiko enpatia eta errespetua mantentzeko konpromisoa indartuko dira.

Azkenik, minaren konponketa eta damu adierazpena errealitate bilaka daitezen, bitartekaritzan daudenek akordio batzuk adostuko dituzte. Ez dago hezitzaileak ezarritako zigorrik, baizik eta hartutako konpromisoaren frogaren erasotzaileek burutuko dituzten eraldaketarako ekintzen zerrenda bat.

Hortaz, esku-hartze eredu honetan berebiziko garrantzia du:

- Lehendabizi parte inplikatu guztiak elkartutzea dira, aurretiaz beharrezkoa zen arreta indibidual edota taldekoa eginik.
- Ikusle-kolaboratzaile taldeari elkarriketa batera egitea eta “isiltasunaren legea” ez indartzea. Honetarako, beraiei eska al zaie biktima identifikatzea eta bata erasotzaileak ere.
- Biktimizazio bikoitza ekiditea.
- Ekiditea jazarpen egoera handitzea gatazkari zilegitasuna emateagatik.

Atal honi itxiera emateko soilik gelditzen zaigu gogoraraztea anti-bullying metodorik hoberena dela prebentzio on bat!



4.2. Esku-hartze konkretuetarako dinamikak

Ohikoena den sexu-heziketa formaleko esperientzian erabiltzen diren eta aniztasunaren ideia bereziki azpimarratzeko baliagarriak diren dinamika desberdinen azalpenak eskainiko dira jarraian.

Esku-hartze konkretuetarako dinamikak

1. ""Desberdintasuna isilean""
2. "Adreiluen koloreak"
3. "Zenbat familia, hainbat eredu"
4. "Nola atera armairutik?"
5. "Genitalak ezagutzen"
6. "Fantasia eraikiz"
7. "Zapiaren jokoa"
8. "Eta hau, homosexualitatea da?"
9. "Soineko berria"
10. "Zenbat dakizu LGBTBI+ kolektiboaz?"




1. “Desberdintasuna isilean”

Ondoko dinamika queer teoretan eta aniztasunean aditua den R. Lucas Platero soziologoak bere hainbat hitzaldi eta esku-hartzeetan erabiltzen duen dinamika batean oinarritua dago. Platerok aniztasuna eta gizarte errealitate desberdinak ikusgai bilakatzeko erabiltzen du, aniztasun sexualetik haratago dauden ezaugarriak ere aipatuz. Kasu honetan, gure testuinguru honetara moldatu dugu.

BEHARREZKO MATERIALAK	Dinamika burutuko duen taldea era erosoan mugitu ahal izateko gela edota eremua.
HELBURUAK	• Aniztasun sexuala ikusgarriago bilakatzeko, baita guztiongan dagoen zerbait bezala. • Desberdintasun ezezagunak eta errealitate desberdinak ikusarazi. • Eskubide Berdintasunari buruzko gogoeta bultzatu.
DINAMIKAREN AZALPENA	1. Dinamika burutuko duen taldea gelaren erdigunean ezartzen da. Elkarrengandik ahalik eta gertuen eta elkarri begira. Horrela daudela galdetzen zaie ea elkarrengandik asko desberdintzen ote diren (eztabaidatxoak uzten da 10 bat minutuz). 2. Elkarri bizkarra emateko eskatu eta azaltzen zaie jarraian esaldi desberdinak irakurriko direla. Esaldiarekiko adostasuna adierazteko aurrera pausu bat eman beharko dute. 3. Jarraian, esaldien irakurketa hasten da, pausua emateko minutu bat emanez. Kontuan izan jarraian idazten ditugunak esaldi proposamenak direla eta taldearen konfiantza maila eta giroaren arabera moldatu ahal direla: a. Uste dut ezinezkoa dela edonor emakume edo gizon perfektuaren estereotipoa guztiz betetzea. b. Inoiz burutu izan ditut nire identitateetik espero ez diren portaerak. c. Nire sexu berdineko norbait musukatu dut noizbait masailan edo ezpainetan. d. Nire sexu berdineko norbait besarkatu dut inoiz. e. Noizbait gertatu zait normalean gustuko dudako sexukoa ez zen norbait erakargarri suertatzea. f. Ezagutzen ditut familia homoparentalak. g. Familian nahiz lagun artean ezagutzen ditut LGBTBI+ kolektiboko pertsonak. 4. Bukaeran, elkarrengandik duten distantzia berria balora dezaten eskatzen zaie eta, eserita borobil bat burutuz aniztasunaren azken eztabaida bat burutzen da.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	• Kontuan izan posible dela, bereziki taldea aurretiaz ezagutzen ez bagenuen, esaldiak era egokian moldatu ez izana. Kasu honetan, esaldiak era zabalagoan ulertzeko galderak egin ditzakegu: “ez al duzue inor zuen sexu berekoa den zuen familiko norbait besarkatu edo musukatu?”, “auzoan edo familikoen lagunaren artean ez dituzue familia homoparentalik ezagutzen? Eta pertsona ospetsuen artean?”. • Garrantzitsua da bukaeran azpimarratzea errealitate desberdintasun sorrarazten dituen beharrak. Hona hemen honetarako galdera posibleak: zein behar dituzte familia homoparentalek? Nola sentitzen gara hasieran ikusten genuen Berdintasun mailarekiko? Konfiantza gehiago izango bagenu, zenbat desberdintasun gehiago azaleratuko lirateke eta zein behar desberdin gehiago datorkigu burura?... • Era honetara ere kolektiboen barruan bertan ematen den aniztasun mailaren gaineko kontzientziazioa burutzen da.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	• GOGORATU esaldiak taldearen konfiantza mailara egokitu behar direla. Hau baxua balitz, iritziak eta kasu hipotetikoak azter daitezke. • Taldearen adinera ere molda daitezke esaldiak eta hauen konplexutasuna.

2. “Adreiluen koloreak”

BEHARREZKO MATERIALAK	• Adreiluzko etxe baten marrazki sinplea non adreiluak barruan hitz bat idazteko besteko tamaina duten. • Margo urdin, arrosa eta moreak. • Boligrafoak.
HELBURUAK	• Norberaren intersexualitatea ezagutzea eta baloreen ezartzea. • Autoestima bultzatzea. • Aniztasuna ikusgarri egitea.
DINAMIKAREN AZALPENA	1. Partaide guztiek dute etxearen marrazki bana, margo joko bat eta boligrafo bat. Eskatzen zaie beralen buruz gustuko dituzten ezaugarriak idaztea, bakoitza adreilu batean. 2. Behin hauek idatzita, eskatzen zaie pentsatzea ea gizarte mailan zein identitatekotzat jotzen diren ezaugarri horiek edota zein identitatetan duten balorazio positibo gehigarria. Ahalik eta tradizionalen eta dikotomikoenak izatea eskatzen zaie. Horrela, feminitatearekin harremantzen direnak arrosaz, maskulinitatearekin harremantzen direnak urdinez eta edozeinetan kokatzen direnak morez margotzea eskatzen zaie. 3. Bukatzean, taldearekin partekatzen da eta ondorioak ateratzen dira.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	• Egin duten ezaugarrien esleipena, hala nola, femeninoak zein maskulinoak diren zalantzan jartzea, honek dakarren gizarte balorazioa... azaleratu behar da. • Bukaeran, agertu ez diren ezaugarriez eta hauek duten esleipenaz hitz egin daiteke, diskriminazioa bizi duten LGTBI+ kolektiboaren egoraren zergatia azaleratzeko.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	• GOGORATU esku-hartzean ahaztu egin behar dugula, neurri batean, “zuzentasun politikoa”. Ohikoa da gorputz-ezaugarriak esleitzen jakitea eta izaerakoak ez jakitea. Ordea, estereotipoen mahaigaineratzea ezinbestekoa da dinamika honetan era estrategikoan. Azken helburua baita identitatea eraiki dezakeen ezaugarriarik ez dagoela ikusaraztea.



3. “Zenbat familia, hainbat eredu”

BEHARREZKO MATERIALAK	• Telesaietako eta filmetako familia eredu desberdin eta ezagunen argazkiak. • Folioak eta boligrafoak. • Ideia zaparradaren ondorioak islatzeko kartoi-mehe, arbela... beti begi-bistan dagoen euskarri bat.
HELBURUAK	• Familia eredu desberdinak ikusgarri bilakatzea. • Komunean familiek dituzten beharrak zein onurak baloreen ezarri, antzekotasunak azpimarratu. • Behar hauek ziurtatuak izateko mekanismo desberdinen beharraz gogoeta piztea.
DINAMIKAREN AZALPENA	1. Adinaren arabera, beraien familiaren marrazki bat egitea edota familiaren argazki bat ekartzea eskatzea da posible. 2. Behin marrazkia edo argazkia aurrean izan, honek eta familia kontzeptuak transmititzen dizkien ezaugarri positiboen ideia zaparrada egin dezatela banaka. 3. Bukatzean, gela edo gunean zehar irudiak ikusgai ezartzen dira. Jarraian, banaka ezaugarriak partekatu eta dinamizatzailerak familiak biltzen ditu euskarri handian. Kontzeptu-familiak inprobisatuz eta taldeari momentuan ere kontzeptuen arteko distantziak ebaluatzeko eskatuz egin daitezke. 4. Honen ostean, taldea banatzen da, talde bakoitzak hezitzaileak eramandako familia-argazkiaren estatua egin beharko du eta taldekideek “bai/ez” erantzun daitezkeen galderaz asmatuko dute zein familia den. 5. Bukaeran, familia anitz horiek gelan bertan detektatu diren ezaugarriak betetzen ez ote dituzten galdetuko da eztabaida hasiz.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	• Oso hizlaria den taldea bada, beharrezkoa izango da “bai/ez” galderen txandan hitz-txanda ezartzeko mekanismoren bat erabiltzea galdera guztiak entzun daitezken.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	• Erabiltzen ditugun erreferentziazko familia ezagunak taldearen adinerako egokiak diren erreferenteetatik ateratakoak izan behar dira.



4. “Nola atera armairutik?”

BEHARREZKO MATERIALAK	Ondoko bideoa ikusi ahal izateko euskarria: “La Mejor manera de salir del armario” - http://bit.ly/2hmW9eN
HELBURUAK	“Armairutik ateratzea” fenomeno gisa aztertzea. - Heteronormatibitatea ikusaraztea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Bideoak eragingo duen umore haustura handitzeko, seriotasunez aurkezten da ondokoa esanez: “Ikerketa askoren ostean, adituek azkenean jo dute armairutik irteteko erarik egokienekin eta jarraian aztertuko ditugu bideo batean”. - Bideoaren ostean, giroa alaia eta lasaia dela aprobetxatuz, gaiari buruzko eztabaidari hasiera ematen zaio.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	- Badaude eztabaida pizteko eta dinamikaren helburuarentzat bereziki interesgarriak diren galderak: zuek etxean “zuen orientazioa adierazi al duzue?”, “zergatik heterosexualek ez ote dute egin behar?”, “bideoa ikusita, zuek nola egingo zenukete etxean?”... - Gainera, taldearen heldutasunaren arabera armairutik irteteak eta honen ondorio posibleek banakoengan sor ditzaketen zailtasunez hitz egin daiteke.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	- Garrantzitsua da bideoaren indar ludikoa mantentzea eta hau aprobetxatzea hain serioa izan daitekeen gai bati buruz beste umore batez gerturatzeko erabiltzea. - Batzuetan parte-hartzaileei bideoa egin duenaren identitate zein orientazioari buruzko “zalantzak” agertzen zaizkie. Zalantzok eta hauek argitzearen beharraren zergatia azpimarratzea ere eztabaidarako lagungarri dira.

5. “Genitalak ezagutzen”

BEHARREZKO MATERIALAK	- Kolore desberdinetako plastilina. - Jarraian ezartzen dugun webgunea proiektatzeko euskarriak edo bertan dauden genitalen posterrak: http://bit.ly/2fH5Bv3
HELBURUAK	- Gorputz aniztasunaren continuum zabala ikusaraztea. - Intersexualak diren pertsonen errealtatea ezagutzera ematea eta gaiari buruzko kontzientziazioa sustatzea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Plastilinarekin banaka edo taldeka existitzen diren genital mota desberdinak. - Ondoren, genital desberdinak aurkeztu eta hauek dituzten atalez hitz egiten da euskarri proiektatu zein fisikoko irudiak oinarri izanik. - Jarraian, agertu ez diren genitalak galdetzen da intersexualak diren pertsonen buruzko eztabaida hasteko.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	- Arrunta da, bereziki adinik txikienetan, nazka adierazpenak agertzea. Hauek LANTZE jarrera batetik kudeatzea da egokiena: “egia da ez gaudela ohituak ikustera”, “arraro senti gaitzke”, “gorputz atal bat gehiago da”... - Intersexualitatearen gaia oso arrotza suerta daiteke, denbora hartu azalpenerako.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	Banakako plastilinazko figurak talderik txikienetan eta kohesio handia dutenetan gomendatzen da, taldeka egiteak dinamika sentiarazi dezakeen lotsa diluitzen laguntzen baitu.

6. “Fantasia eraikiz”

BEHARREZKO MATERIALAK	- Artilezko harila bat - Taldearekin borobil bat egiteko besteko gela edo espazioa
HELBURUAK	- Orientazioa malgua den zerbait gisa ezagutzea. - Taldearen heteronormatibitate maila neurtzea. “Orientazioa – desirak – fantasia” hirukotea desberdintzen ikastea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Dinamizatzaileak artilezko harilaren punta bat hartu eta azaltzen dio taldeari guztien artean “fantasia” bat eraikiko dutela. Bakoitzak esaldi bana gehitu behar dio istorioari eta behin esaldia bukatua, artilea dagokion zatitik heldu, hurrengo parte-hartzaile gisa aukeratzen duenari pasa aurretik. Guztiek hitz egin ostean (bi aldiz talde xikia bada), atzera buelta egin beharko dute istorioa amaituz. - Dinamizatzaileak testuingurua eta oso datu gutxi aurkezten dituen sarrera egiten du eta harila pasatzen dio edozeini jaurtiz. - Istorioa bukatzean, lortutako istorioaren ebaluazioa egiten da: errealista al da? - Bukatzeko, fantasiek errealismoa beharrezko duten ala ez eta, honekin batera, desiren eta orientazioarekin duten harremanez eztabaidatzen da.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	Esaldia botatzeko denbora muga ezartzea oso komenigarria da, abiadura handitzeko.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	Talde batzuetan egokia da hasieratik argi uztea irudimenezko pertsonaiak soilik aipa daitezkeela elkarren arteko etengabeko txantxak ekiditeko.

7. “Zapiaren jokoa”



BEHARREZKO MATERIALAK	- Zapi bat. - Korrika egiteko gune irekia.
HELBURUAK	Informazioa estereotipoengandik desberdintzea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Zenbakiekin jolastu ohi den zapiaren jokoa da, baina oraingoan esaldiak zuzenak diren ala ez izango da zapia hartzeko estimulu gehigarria. - Taldeak sortuta eta partaideek zenbaki bat izanik, arau gehigarriak azalduko zaizkie: - Puntua lortuko du, esaldia zuzena izanik zapia bere taldera eramatea lortzen duenak - Posible da, lehiakidea despistatzeko, zapia hartzearen keinua egitea. BAINA, zapia ukitu edo lurrera botako balitz, puntua automatikoki beste taldeak irabaziko luke. - Esaldi bakoitzaren irakurketa aurretik hau egia den ala ez ebaluatu beharko dutenen partaide zenbakia esan beharko da. - Esaldi guztiak irakurri ostean bukatuko da jokoa eta saiatu behar da partaide guztiek atera ahal izatea zapiaren bila behin eta bi bat esaldi ebaluatu behar izatea.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	Ziurtatu aurretiaz guztiek ezagutzen dutela “zapiaren jokoa” eta honen arauak.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	- Hautatutako estereotipoak taldearen partaideen adinari eta aurretiaz duten gaiaren eadutza mailari egokitu beharko dira. - Taldeari aurretiaz adierazi beharko zaio arropa erosoan eraman dezan edo, behintzat, jokorako aproposena dena. - Dinamika-ziklo bat burutu ostean dagoen ezagutza maila berria ebaluatzeko teknika aproposa izan daiteke.

8. “Eta hau, homosexualitatea da?”

BEHARREZKO MATERIALAK	Ondoko bideoa proiektatzeko beharrezko euskarriak: http://bit.ly/2hmQJjZ
HELBURUAK	- Orientazioa eta praktikaren arteko harremanaren konplexutasuna ulertzea. - Desiraren malgutasuna ulertzea. - Gizarte ohiturek ere sortzen duten “normaltasunaz” gogoeta egitea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Bideoa aurretiaz gehiegi azaldu gabe, parte-hartzaileei esaten zaie “futbola ikusteko gelditu diren bi lagun arruntan bideoa” ikusiko dela. - Bideoa hastean komentario bat gehi daiteke: “nor ez da inoiz lagunekin gelditu arratsalde pasa futbolaz edo telesail batez disfrutatzeke?”. - Bideoaren ostean gertatutakoaz, honek azaleratzen duenaz eta hortik ondorioztatzen denaz hitz egiteko eztabaida irekitzen da.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	Interesgarria da gertatu denaren aukera guztiak azaleratzea eta kasu guztien ondorio posibleak miatzea.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	Bideo lagungarria izan daiteke nerabezaroan eta gaztaroan bereziki norbere burua ezagutzeko garaia izanik egoera berriak kudeatzeko zailtasunekin identifikazio maila altua senti daitekeelako.

9. “Soineko berria”

BEHARREZKO MATERIALAK	Ondoko bideoa proiektatzeko beharrezko euskarriak: http://bit.ly/2hmWjT
HELBURUAK	- Identitate eta izaera aniztasuna ikusgarri egitea. - Izaera-identitate kausalitatea zalantzan ezartzea. - Trans* errealitatea gehiago ezagutzea. “Normaltasunak” gizarte mailan eraikitzeke gaitasunaz ohartaraztea.
DINAMIKAREN AZALPENA	- Laburmetraiaren nondik-norakoak azaldu gabe, hau aurkezten da esanez “soineko berri bati buruzko” laburmetraia dela. - Ikusi ostean, aukera posible guztiak azaleratuko dira eta eztabaida burutuko da. - Trans* errealitatean eta sorrarazten duenean sakondu.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	Posible da ere beste bukaera hipotetiko batzuk asmatzeko eskatzea edota “amaiera zoriontsuak” diseinatzea eskatzea taldeka edo banaka.
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	Kontuan izan beharko da taldean antzeko esperientziarik ezagutzen ote diren eta, ondorioz, kasu errealekin alderaketa egiteko aukera baloratzea.



10. “Zenbat dakizu LGTBI+ kolektiboaz?”

BEHARREZKO MATERIALAK	• “Tribial” jokoaren euskarri berdinak behar dira (propioak eraiki daitezke edota joko originalaren euskarriak erabili). • Taldearentzat nahikoak diren galdera-sorta prestatu beharko da atalka. Hona hemen gure atalen proposamena: - Kontzeptu sexologikoak. - Natura eta biologia. - Legedia. - Laguntza eta bestelako baliabideak. - Kultura. - Historia.
HELBURUAK	• LGTBI+ kolektiboaren ikusgarritasuna konkretuki lantzea. • Ezagutza ebaluazioa egitea.
DINAMIKAREN AZALPENA	1. Jokoaren arauak azaltzen dira eta jokoa hasten da. 2. Banaka baino, taldeka bada, interesgarria da denbora muga bat ezartzea erantzuteko. 3. Bukaeran ezagutzaren ebaluaketa bi zentzutan erabili daiteke: a. Dinamika gehiago egingo badira: partaideek ahuleziak eta indarguneak identifikatzeko eta, ondorioz intereseko gai-zerrenda egiteko. b. Bukaerako ebaluaketa burutzeko dinamika bada: aurretiaz burututako lana eta taldearen barneratze-gaitasuna ebaluatzeko balio digu.
DINAMIZATZEKO AHOLKUAK	• Tribial” jokoaren arauak aurretiaz ezagutzen direla ziurtatu. • Posible da, denborarekin eginez gero, partaideak gainetik mugitzeko taula egitea eta beste jokoetako zigor eta sariak txertatzea (adibidez, “kartzela” moduko laukia egin eta zigortuarentzat moztar bat prestatzea).
KONTUAN IZAN BEHARREKOAK	Eskaini ditugun dinamika adibideetan hau da gehien luza daitekeena, gai desberdinei buruzko azalpen monografikoak bideratzea baimentzen baitu.




Gogoratu!

Dinamika hauek luzatu ostean, zuen dinamika propioak eraikitze gonbita egitea besterik ez zaigu falta! Ez baitago taldea ezagutuz eta honetara moldatuz diseinatzen den dinamika baino hobeagorik!

4.3. Material gehigarriak

Egun oso erraz aurki ditzakegu bestelako material gehigarrien gomendio-gidak interneten bilaketa orokor bat eginik. Hala ere, atal honetan bereziki deigarriak diren material gutxi batzuk aurkeztu nahi ditugu:

1. Dokumentalak




Out in nature – Homosexual behaviour in the animal kingdom (2001)

Erotika homosexualaren naturaltasuna historikoki ukatua izan den bitartean, egun hauen baieza dezakeen dokumental interesgarria.

Oraindik ere barneratua dauden naturari buruzko hainbat uste hankaz gora jartzeko ezinbestekoa!

Ingelesez gaztelaniazko azpitituluekin.



Mi aventura intersexual (2010)

Emakume batek bere biografia eta honetan bere intersexualitateak izan duen papera helarazten digu.

Lehen pertsonan, bizitza istorio baten isla eta zentsurarik gabea.

Gaztelaniaz soilik.



Metamorphosis (2016)

Transexualitatea bizi duten bi pertsona (Izaro Antxia eta Ares Piñeiro) eta gaian aditua den Josebe Iturriozek beraien ikuspegia partekatzen dute.

Bizipenak eta ekarpen profesional nahiz militantziazkoak elkartuz proiektu elebiduna.



2. Filmak



La Chica Danesa. (2015)

Bere gorpuzkera kirurgikoki aldatzen lehena izan zen Lili Elberen istorioa kontatzen digu. Pelikula komertzialen artean aniztasunarekiko azkenengotariko keinua. Gaztelaniaz soilik.



80. egunean (2010)

Axun ospitalean dela bere txikitako lagun batekin topo egiten du. Honekin berriro gelditzen hasterakoan iragana berriro ere bueltatzen da oraina nahastera...

Euskaraz eginiko filma. Lesbianen ikusgaitasuna lantzeko ezinbestekoa. Euskaraz eta gaztelaniaz.




XXY La Película (2007)

Alex Argentinako herri txiki batean bere gurasoez babesturik hazi izan da bere intersexualitatea dela eta, baina horrelako sekretuek ez dute gehiegi isilean irauten...


Batzuetan eszena gogorak dituen filma baina beharrezkoak diren galderak mahaigaineratzen dituena. Gaztelaniaz soilik.

3. Liburuak ume zein nerabeentzat



Aitorrek bi ama ditu. Erein

Familien aniztasuna ikusgarri bilakatzeko ipuina. Euskaraz eta gaztelaniaz.



Markos kantinera. Elkar

Zer gertatuko litzateke mutil batek kantinera izan nahiko balu? Euskaraz soilik.



El chico de las estrellas. Destino. Chris Pueyo

Idazlearen bizitzaren lehenengo hogeitaz hamar urteen isla autobiografikoa. Gaztelaniaz soilik.

5. Intereseko guneak



Atal honetan intereseko gune desberdinak aipatuko ditugu (administrazioek errazten dituztenak, elkarteak...).

5.1. Administrazioek erraztuak

5.1.1. Berdindu Zerbitzua

Eusko Jaurlaritzaren “aniztasun sexual eta generoko”²-rako arreta zerbitzua dugu hau. Gida honetan erabili den hizkuntza estiloan esanda, identitatea, izaera eta orientazio aniztasuna lantzeko. Bereziki, oraindik ere diskriminazio zein zailtasunak bizi dituzten kolektiboak (LGTBI+) nahiz hauen ingurukoei luzatzen den zerbitzua da. Izan ere, Berdinduk informazioa eta arreta eskaintzen die baita familiei, hala nola, hezkuntza komunitateari.

Zerbitzu honen barnean, gainera, badago ere “Berdindu ibiltaria”³. Konkreteki “trans”⁴ pertsonen zuzendutako eta “Berdinen arteko arreta” ereduaren oinarritutako zerbitzua da hau. Ibiltaria denez, zerbitzuaren erabiltzailea izango den pertsonaren ohiko bizilekuan arreta eskaintzea da helburua.

Ibiltaria den zerbitzua alde batetara utzita, Berdinduk Euskadiko hiru hiriburutan eskaintzen du arreta, ondokoak izanik Bizkaian aurkitzen den arreta bulegoaren datuak:

Berastegui, 5 - 5º

8. eta 9. sailak, 48001, Bilbo

944 237 296

berdindu.bizkaia@aldarte.org

Eta ondokoak zerbitzu ibiltariaren datuak:

Benidorm kalea 1.


Esk-Ezk solairuarte 48015 Bilbo

675 459 317

berdindu.ibiltaria@errespetuz.org



Hauetaz gain, interneten informazio orokorra eskaintzen duen atala aurki daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren webgune atalean (<http://bit.ly/2jo2FFC>) eta badago ere ondoko helbide elektroniko orokorra: berdindu@euskadi.eus



5.1.2. Sexu Aholkularitza Zerbitzua

Aurreko zerbitzuak espezializatuagoa den arreta luzatzen duen bitartean, Sexu Aholkularitza Zerbitzuek sexualitateari buruzko edozein kezka nahiz kuriositatei erantzuna emateko eremua da. Zerbitzu mota honek lekuan lekuko formatu konkretua hartzen badu ere, azpimarratzekoa da arreta aurrez-aurre, telefonoz eta baita on-line bideratu izan ohi dela.

Egun Bizkaian dauden bulegoen informazioa ondoko estekan aurki daiteke: <http://bit.ly/2fwSQnD>. Bestalde, informazio hori ere Gida honen triptiko gehigarrian aurki daiteke.

5.2. EGK-k sortutako Zigilu bereizgarria: Gune Anitza



EGK-ko Berdintasun lan-arloa berreskuratu den 2016 urte honetan garatutako proiektuetako bat izan da hau. Gune Anitzak aniztasunarekiko aldeotasuna publikoki eta positiboki adierazi nahi duten gune fisiko zein birtualak dira.

Identitate, izaera nahiz orientazio aniztasunarekiko aldeotasuna eta, bereziki, emakume eta gizonezkoen arteko Berdintasuna eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideen defentsa da erakusgarri egiten duena zigilu hau. Izan ere, ez da batere ezohikoa Berdintasunaren edota LGTBI+ kolektiboaren aldeko mezuak adierazten dituzten irudiak aurkitzea egun gune fisiko zein birtualetan. Are gehiago, oso ohikoa da mezuok aldeotasuna erakusteko baino kolektiboen aurka ematen diren erasoak salatzeke eta onartuak ez direla adierazteko izatea. Ondorioz, bi ziren gabeziak. Alde batetik, irudi bateratu batena eta, bestetik, jarrera proaktiboa erakustearena.

Hau dela eta, positibotik eta sinergietatik eraikitzeke, aniztasunari era bateratuan eta barne-hartzailean ongi etorria ematen dion zigilua sortu da.

Zigilua lortzeko, Manifestuarekiko atxikimendua adierazi behar zaio Kontseiluari, honek gero guneak behar dituen beste zigilu fisiko nahiz mota desberdinetako zigilu birtualak helarazteko. Manifestua urtero berrikusiko da Nazioarteko Harrotasunaren Egunean (Ekainak 28).

Bizkaian aurki daitezkeen Gune Anitzak zeintzuk diren ezagutzeko EGK-ko Berdintasun lan-arloarekin harremanetan ezarri behar da:

Telefonoa: 944 43 61 43

Helbide elektronikoa: berdintasuna@egk.org

5.3. Elkarte eta taldeak

Elkartegintzatik eta militantziazik aniztasunaren alde egiten den lana ere aipagarria da. Hona hemen Bizkaian eta Euskadin aurkitzen diren intereseko elkarte batzuk:

Bikaian bertan

ALDARTE. Gay, Lesbiana eta Transexualen arreta Zentroa

Webgunea: www.aldarte.org

Facebook: Aldarte Zentroa - Centro.

Twitter: @ALDARTE

Helbide elektronikoa: web@aldarte.org

Tfnoa.: 944 23 72 96

Helbidea: Berastegi kalea, 5 - 5, 8 eta 9 sailak, Bilbo.
(Araban ere bulegoa)



EHUko LGTB Liga

Webgunea: <http://www.ligalgtb.com/>

Facebook: EHUko LGTB Liga.

Twitter: @LGTBLiga

Helbide elektronikoa: lgtbliga@gmail.com



BIZIGAY. Sexu Aniztasun eta Askapenerako Elkarte

Webgunea: www.bizigay.org

Facebook: BIZIGAY.

Twitter: @Bizigay

Helbide elektronikoa: info@bizigay.org

Tfnoa.: 605 72 48 39



ERRESPETUZ. Asociación Vasca para la Defensa e Integración de las Personas Transexuales

Webgunea: www.errespetuz.blogspot.com

Facebook: Errespetuz

Errespetuz.

Twitter: @Errespetuz

Helbide elektronikoa:

errespetuz@hotmail.com,

errespetutxoz@gmail.com

Tfnoa.: 944 76 40 54.

Mugikorra: 675 45 93 17

Helbidea: Benidorm Kalea 1, Solairuarte Esk-Ezk. Bilbo



EHGAM - Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua

Webgunea: www.ehgam.eus

Facebook: EHGAM - Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua.

Twitter: @EHGAM

Helbide elektronikoa: ehgambizkaia@gmail.com,

gaztehgam@gmail.com

Tfnoa.: 605 71 22 63



Euskaditik irten gabe:

CHRISALLYS EUSKAL HERRIA. Adingabe Transexualen Familien Elkarte

Webgunea: www.chrysallis.org.es (Webgune orokorra da Estatu mailako elkarte baita)

Facebook: Chrysallis Euskal Herria.

Twitter: @ChrysallisEH (badituzte Estatu mailako sare sozialak ere)

Helbide elektronikoa: euskadi@chrysallis.org.es

Tfnoa.: 685 76 77 90



GEHITU. Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarte

Webgunea: www.gehitu.org

Facebook: Gehitu Elkarte.

Twitter: @Gehitu_Elkartea

Helbide elektronikoa:

info@gehitu.org,

gazte@gehitu.org

Tfnoa.: 943 46 85 16

Helbidea: Kolon Pasealekua, 50. Donostia



ANIZTASUN SEXUALAREN OROITZAPENEZKO EGUNAK

Gidarekin bukatzeko premiazkoa iruditzen zitzaigun urtean zehar dauden oroimenezko aniztasun sexualarekin lotutako egun desberdinak diren aurkeztea. Hona hemen gure egutegia:

martxoaren 15a	Trans Ikusgaitasunaren Eguna
apirilaren 26a	Lesbianen Ikusgaitasunaren Eguna
maiatzaren 17a	LGTBI+fobiaren aurkako eguna
ekainaren 28a	Harrotasunaren Eguna
irailaren 23a	Bisexualitatearen Ikusgaitasun Eguna
urriaren 11a	Armairutik Irteteko Eguna
urriaren 23a	Trans Despatologizazioaren Aldeko Eguna
urriaren 26a	Intersexualitatearen Ikusgaitasunerako Eguna
azaroaren 8a	Intersexualitatearekiko Elkartasun Eguna
azaroaren 20a	Trans Memoriaren Eguna

2017

urtarrila

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

otsaila

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	16
27	28					

martxoa

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

apirila

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

maiatza

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

ekaina

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

uztaila

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

abuztua

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

iraila

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

urria

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

azaroa

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

abendua

AL	AR	AZ	OS	O	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Gehiago jakiteko

Jarraian jasotakoak dira Gida honen marko teorikoaren oinarri gisa baliagarriak izan diren dokumentu eta webguneak:

1. Dokumentu interesgarriak

- Revista Española de Sexología nº 94-95. Teoría de los Sexos La letra pequeña de la Sexología. E. Amezá.
- Revista Española de Sexología nº 160. Dos nociones muy útiles en Sexología: Dificultades comunes y peculiaridades eróticas. E. Amezá.
- Revista Española de Sexología nº 163-164. Asesoramiento sexológico: Claves metodológicas. X. Díez Arrese, A. García Mañas, J. Lejárraga Vera.
- Trans*exualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos. Lucas R. Platero.

2. Webgune interesgarriak

- AdvocatesforYouth webguneak “No hay lugar como el hogar para la educación sexual” liburua: <http://bit.ly/1V6XFRE>
- Emakumeen Estatu mailako Institutuak (Instituto Nacional de Mujeres) argitaratutako gida: <http://bit.ly/1LFvdBg>
- Estatu mailako Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Federazioaren (FELGTB) dokumentuak: <http://bit.ly/2i8B6vj>
- Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuaren (STEE-EILAS) aniztasunari eta LGTBI+ kolektiboari buruzko dokumentuak: <http://bit.ly/2iZsTOs>
- Gazteen Euskal Behatokiaren aniztasunari buruzko materialen zerrenda: <http://bit.ly/2iGEbqK>
- In.Ci.Sex: Sexologiaren Institutuaren oinarrizko kontzeptuak: <http://bit.ly/2iVefqO>
- Pertsona intersexualei buruzko informazioa duen bloga: <http://bit.ly/2jktre3>
- SpanishQueens bideo kanala: <http://bit.ly/1MJNOiB>

Proiektuaren atzean

Bukatzeko, proiektu honen atzean dauden eragile guztiei eskerrak eman nahi zaie.

Nortzueri esker

Eskerrak eman nahi dizkiegu lehen gida hau posible egiten duten pertsona guztiei, beraien ekarpen eta iritziak izan baitira honen oinarri. Pertsona horiei guztiei: ESKERRIK ASKO.





Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*